

pertsonaia

PLT geu aldizkariaren 150. aleko jaian; taldeko abeslari rafa ruedarekin mintzatu gara

GEU

2005eko ekaina

150

gaia

desagertzeko zorian dagoen el salvadorreko nawat hizkuntza berreskuratzeko ekimena

gizartea

javier otaola: "sindikoak bat egin behar du laguntzeko eta entzuteko prest dagoen pertsonarekin"

PLT.
zuzenean

150. aleko jaia
ekainaren 17an azkena aretoan

EGA Master S.A.

SARITUENA

Mastercut Aliketa



**BRONTZEZKO
DOMINA**
Paris 2004

PVC Kortatuboa

PIRAINA®



**ZILARREZKO
DOMINA**
Paris 2004



Unique Kortatuboa



**URREZKO
DOMINA**
Paris 2004



133 HERRIALDETAN LIDER



**URREZKO
DOMINA**
Paris 2004



MasterPlus Kurrika



**BRONTZEZKO
DOMINA**
Paris 2004


KALITATEAN LIDERRA

**EFQM
BIKAINASUN
DIPLOMA**



**BERRIKUNTZA
SARIA**
METALMAQ 2001

**ESPORTAZIO
SARIA 2002**



EGA Master S.A.

SUMARIOA 150

150. alea, geu aldizkariaren aro berri baten hasiera

Heldu gara dagoeneko 150. alera. 150 ale eta ia 13 urte kalean. Unea probestuz, aldizkariari itxura zein egitura aldaketa bat egin nahi izan diogu. Etorkizuneko aldaketa sakonago baten hasiera baino ez da. Beste jauzi bat eman nahi izan dugu gure bidean eta gure ustez, aldizkari profesionalago eta dinamikoagoa lortu dugu, aurreko faseko onena mantenduz, jakina. Diseinu aldetik, garbitasuna eta modernitatea bilatu ditugu. Horrez gain, 150. ale honetan kolore bat sartu dugu, une berezi hau ospatzeko.

Guztia aldizkariaren kalitatea, finen euskararen esparrua, hobetze aldera. Logotipoaren ondoko 'Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria' esaldia ez dugu hemendik aurrera erabiliko; zabaltze aro berri baten hasieran gaude eta Gasteiztik haratago heltzea da gure erronka. Zabaltzea, batetik, edukietan, Araba, Euskal Herri osoko gaiak maiztasun handiagoz ekarri nahi baititugu gurera, bai eta bertako edukiak eremu zabalagoan ezagutarazi ere; eta bestetik, banaketa eremuaren zabaltzea, ez bakarrik Gasteizen bertan, baizik eta Araban zein Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetan barrena ere, lehenengo aldiz historian SALGAI jartzeko lehen urratsak ematen baitihardugu.

Halere, gure apustua HARPIDE-TZA da eta SALGAI JARTZEA aldizkariaren ERAKUSLEIHO gisa ulertzen dugu.

Eta gogoan izan, EKAINAREN 17an jai polita antolatu dugula, aldizkariarekin batera banatu flyerrean ikus dezakezen bezala. Izugarri gustatuko litzaiguke zuek, harpidedunok, jaira bertaratzea egitasmoari merezitako babesa emateko eta gau polit batez goza gaitzen. Hantxe espero zaituztegu, girorik ezin hobean, beraz.

Eskerrik asko denoi urtez urte hor izateagatik

estitxu breñas,
geu aldizkariko zuzendaria,
aldizkaria egiten dugunon izenean



| | |
|---------------------------------------|----|
| zeregin | 4 |
| ekainerako agenda | |
| iritzia | 7 |
| araba euskaraz '05 | |
| geupertsonaia | 8 |
| rafa rueda eta xabi arakama | |
| batbitan | 12 |
| euskal herriko eskola | |
| kaletik idazleenzutabea | 14 |
| 150. alea patxi zubizarreta | |
| euskaltasunean | 15 |
| nerrea sastre | |
| geugaia | 17 |
| el salvadorreko nawat | |
| artetxokoa | 20 |
| iker ortiz de zarate, euskabareta | |
| proposamenak literatura | 22 |
| zinea+cd+liburua txabi arnal | |
| lauhitzetan | 23 |
| jamiroqui gasteizen... | |
| batbitan | 24 |
| javier otaola, sindikoa | |
| bidaia errezeta | 26 |
| jon arretxe begihandien | |
| arababixotzian historiazutabea | 27 |
| alfredo ibarra erlantz urtasun | |
| geuelkarte | 28 |
| eskaintza | |
| batbitan | 30 |
| ueu ikastaroak | |
| historia&euskara | 32 |
| mediaberri.com | |
| umorea | 33 |
| iñigo sarasola | |
| batbitan | 34 |
| vologako batelariak | |
| orribatean | 36 |
| 'II.a: ez dugu begiratuko' erakusketa | |
| iritzia | 37 |
| andoni perez cuadrado | |
| orribatean | 38 |
| la pera limonera denda | |

Laguntzaileak:



Eusko Jaurizitzako
Kultura Saria



Arabako
Foru Aldundia



CAJA LABORAL

FUNDACIÓN
EROSKI



4

ZINEA EUSKARAZ.
amaia zentroan 12:00etan
euskharan elkarte

KONTZERTUA
zaharregia txikiegia agian
bilboko kafe antzokian
22:00etan
www.kafeantzokia.com



5


EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN XIV. JAIA.
agurainen
www.denoneskola.com

KONTZERTUA:
urgabe. agurainen
(jai barruan)



7

KULTUR EMANALDIA
LOS DEL GAS. Lehen BLUES
THORPES zirenak + GORKA
AGINAGALDE abesten
parral tabernan
20:30ean



9

KONTZERTUA:
the masons
hell dorado. 22.00ean
www.helldorado.net

IKUSKIZUNA:
Pekineko zirko akrobatikoa
principal antzokia. 20.30ean

10

KONTZERTUA:
texas terri bomb + nuevo
catecismo catolico + the capa-
ces + brigada criminal
hell dorado. 22.00ean
www.helldorado.net



11

KONTZERTUA
hamlet + materia
azkena aretoan. gasteiz
www.azkena.com

12

**S. PRUDENTZIO ARGAZKI
LEHIAKETA**
XXXVI erakusketa (azken eguna)
ignacio aldekoa kultur etxean

13

ERAKUSKETA
[10etik] 'II.a: ez duzu begiratu-
ko'. 'VTV: gasteiz lurralde ikus-
korra' programa barruan
uztailaren 3ra bitartera

14

KULTUR EMANALDIA
PASAJEROS. Kolonbiarrak,
hemen zehar dabilta kontzer-
tuak egiten
parral tabernan
20:30ean



16

MUGALDEKOAK.
musika & poesia. durangoko
kafe antzokian (plateruena)
20.30ean. doakoa
www.plateruena.com

KONTZERTUA:
zū taldea
montehermoso kulturunean
20:00etan

17

**GEU ALDIZKARIAREN
150. ALEKO JAIA**

TTLT & zorabiok & isdeo & eus-
kal musika dantzagarria
azkena aretoan. 21:30ean

18

KONTZERTUA:
zea mays. durangoko kafe
antzokian (plateruena)
22.30ean
www.plateruena.com

19

ARABA EUSKARAZ.
amurrio: kauta, txapel...
www.araba-euskaraz.org

UEU & UDAKO IKASTAROAK.
matrikula epearen amaiera
www.ueu.org



21

GEU. KULTUR ERROTA.
hitzaldi umoretsua: kike amona-
rriz & asisko urmeneta & anton
olariaga. 'euskara lardaskatzeko
manerak'
20:30ean. parral tabernan

22

**DEBAKO ARTE ESKOLA-
UDAKO IKASTAROAK**
grabatua, zeramika, egurra...
matrikula epearen amaiera
943191804
debarthe@deba.net
www.debarthe.net



24

KONTZERTUA:
neubat
judimendiko jaiak

25

KONTZERTUA:
kauta
laudioko san juan auzoan

26

GEUREKIN MENDIRA:
joar: 9:00etan Iovaina plazan
(goizekoa). 629487540 (xabi) /
geurekin mendira gazte taldea:
anboto. 7:45ean autobus gelto-
kian (busez)
945222153 (josune)



28

KONTZERTUA
SOKAIRE. Gasteizko FOLK taldea
parral tabernan
20:30ean

30

**GASTEIZKO IRAKURLE
KLUBA.**
ramon saizarbitoria, 'gorde
nazazu lurpean', erein 2000.
dinamizatzailea: iban zaldúa
idazlea
hikaateneoan
20:00etan

araba euskaraz, ekainaren 19an amurrion. ekiozu bideari

araba euskaraz, 1980az geroztik, euskara, euskal kultura eta ikastolen alde urtero-urtero arabako ikastolek antolatzen duten jaia duzue, aurtengoa bere 25. edizioa izanik.

antolaketa dagokionean, arabako herri desberdin bateko ikastolak hartzen du bere gain, betiere, beronek duen proiektuaren garapenerako beharrezkoak zaizkion premien arabera hautatua izan eta gero.

jaiaren funtsa, aldiz, gune desberdinez osaturik eta oinez ibil daitekeen kilometro gutxioko zirkuito batean datza. bertan antolatzen diren hamaika ikuskizunetz gozatzen, eguna igarotzeko aukera paregabea eskaitzen zaie familian nahiz lagunekin parte hartzen duten guztiei, eta hauek era anitzak dituzte lagundu ahal izateko: zirkuitoko sarreraren borondatea utziz, bertoko txosnetan edaria-janaria kontsumituz, propio ateratzen den materiala (kamisetak,...) erosiz,...

www.araba-euskaraz.org

kulturika 05

ekaina: ikaperia (ikasturte amaierako jaia) / urria: ikasturte hasierako jaia / azaroa: zinea euskaraz / abendua: neguko jaia...

igartza saria. VIII. literatura-sorkuntzako beka idazle berrientzat

uztailak 1 (epea)
antolatzailea: beasaingo udala-euskara zerbitzua
euskera@beasain.net / 943028063

sancho el sabio fundazioa VIII. unibertsitate mailako ikerketa lehiaketa

uztailak 29 (epea)
www.fsancho-sabio.es / fs-inv@fsancho-sabio.es / 945147800

becerro de bengoa XVII. saiakera lehiaketa / ignacio aldekoa saria XXXIV. ipuin lehiaketa / ernestina de champourcin XVI. poesia lehiaketa

lanak aurkezteko epea irailaren 7an bukatuko da. arabako foru aldundiaren kultura, gazteria eta kirol sailean entregatu edo hara bidali -probintzia plaza 5-3.a-01001-gasteiz-, kanpoaldean lehiaketaren izena jarrita. jakina denez, bi hizkuntza modalitate ezartzen dira, euskara eta gaztelania; lan bakoitza horietako modalitate bakar batera aurkez daiteke.



euskal herriko II. graffiti lehiaketa

topagunea, euskara elkarrekin federazioak jarri du bigarren ezabian lehiaketa hau. euskal herriko gazteentzat pentsatuta dago eta 2 zati ditu: lehenik, parte hartu nahi dutenek uztailaren 1a baino lehen, margotuko duten horma-irudiaren bozetoa aurkeztu behar dute; bigarrenik, bozeto horien artean 10 lan hautatuko dira eta egileek uztailaren 16an getxon izango den jaialdian hormetan margotuko dituzte. 10 graffiti horietatik 4 sarituko dituzte. parte hartzeko ezinbestekoa da 15 urtetik gorako gazte euskalduna izatea. bakarka zein taldeka parte har daiteke. informazioa: www.topagunea.org



euskal herria zuzenean, festibala baino gehiago

euskal herria zuzenean festibalaren X. edizioa uztailaren 1, 2 eta 3an Xiberuako Indauze Mendin (mendikota eta ozare artean) burutuko da aurtengoa. 30.000 bisitari bildu izan ditu festibalak azken edizioetan. laguntzaileak dira jaialdia zutik mantentzen dutenak. musika eta kultura festibala da. belaunaldi berrietara egokitu izan da. ekintza interaktiboak proposatu eta bultzatu nahi dira; publikoak ez dadin musika kontsumitzaile bakarrik izan, baizik eta festaren aktore. festibalaren eskaintza kalitatekoa izan nahi du. memento eta festibal gunearen leku anitzetan animazio desberdinak egongo dira: antzekia, dantza, hitzaldiak, kantua, erakusketak, haurrentzako txokoak eta gaueko kontzertuak. sorreratik "herrien eurock-a world companyren aurka" izan du lelo nagusi. dirulaguntzarik gabeko dinamika independentea, minorizaturiko herri eta kulturen aldeko topagune den antolakuntza librea du. herritar, internazionalista eta altermundialista den antolakuntza. herritar ispiritu solidario berdinarekin banatzen da festibalak (laguntzaileei esker) ematen duen etekina: proiektu aurrerakoiak, sozialak, humanitarioak eta, noski, euskaldun eta euskaltzaleak laguntzeko. honen eredu, lagundu izan diren, seaska ikastolaren heziketa proiektua, lodosa-sartagudako ikastola berriaren eraiketa, berria egunkaria, maliko bouremen emakume elkarrekin proiektua...

laguntzaile aritzeko epea: ekainak 6 / informazioa: 946215116 / gazteak@topagunea.com
www.festival-ehz.com



euskal eskola publikoaren XIV. jaia, ekainaren 5ean agurainen. mugak gaindituz, bideak egin

urtero euskal herriko ikastetxe publikoetako gurasoek kalitatezko euskal eskola publiko euskaldun, integratzaile eta partehartzailearen alde antolatzen den festa da. aurtengoa, berri ere, agurain aukeratu dute, duela bi urte jai hau arrakasta handiarekin hartu zuen herria. azken edizioetan bezala, honetan ere kukuxumusuk egin die irudia eta ederki agertu du aukeratu leloa: mugak gaindituz, bideak egin. euskal eskola publikoaren jairako 'mugak gaindituz' lelo nagusitz hartu zenetik, berau erabili izan dute une zehatz bakoitzean egokiak izan diren kontsignak gehituta.

ehige gurasoen elkarte / www.ehige-jai.org



'afrika, bestelako begirada eta ahotsak jardunaldiak'

ekaineko hitzaldiak 'afrika, esperantzatik' du izenburu eta mbuyi kabunda badi izango da hizlaria; congo-ko unibertsitateko zientzia politikoetan lizentziatua, harreman internazionaletan irakaslea, ikertzailea eta 'sodepaz' gobernuz kanpoko erakundearen lehendakaria da.

Hikaateno-n (Pintore kalea 13-behekoa).
Tfnoa. 945288192 / gasteiz@hikaateneo.org

GEU laguntzailea: Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa
Gizarte-Ekintza

udako
ikastorak

bai & by
land

Florida kalea, 8 Tl. 945 150 155

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

EVSKAL LABELA LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

VIAJA CON
AEK



DESTINO EUSKARA

UDA 2005
barnetegiak
3 eta 5 orduko ikastaroak

haz tu reserva!

i 945 25 24 00 **aek**
www.aeknet.net

ITYRRIETA



Sagardotegia

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZE HAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK



zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Euskadik behar zaitu



EAJ
PNV

IRYSTA TABERNA
Mateo Moraza 19
poteo eta pintxoak Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN
Artisau



Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



Amurrioko Aresketa Ikastolak orain 28 urte hasi zuen bere ibilbidea Mendiko Lagunak taldeak utzitako pisu batean. Ikastola sortu zuen haur haien andereñoak, Maite Oyangurennek, oraindik lanean jarraitzen du.

[angel olalde]

Ekainaren 19an Amurrion egingo da hogeita bosgarren Araba Euskaraz

Arabako bigarren herria den Amurrio udalerririk 9.500 biztanle ditu eta Amurrio, Larrinbe, Lezama, Baranbio, Saratxo, Lekamaña, Aloria, Artomaña, Tertanga eta Delika herriek osatzen dute. Mugei bagagozkie, iparraldean Laudio eta Orozko dituzue, hegoaldean Orduña, mendebaldean Aiara eta ekialdean Zuia.

Amurrioko Aresketa Ikastolak orain 28 urte hasi zuen bere ibilbidea Mendiko Lagunak taldeak utzitako pisu batean. Ikastola sortu zuen haur haien andereñoak, Maite Oyangurennek, oraindik lanean jarraitzen du eta ikasle haientako batzuk irakasle edo guraso dira gaur.

Orduan ilusio eta esfortzu handiz hasitako ibilbideak bere fruituak eman ditu eta orain 2 urtetik 16ra bitartean 427 ikasle ari dira bertan. Ikastolak kudeatzen du, bestalde, Tantara Udal Haur Eskola deitzen den haurtzaindegia. Bertan 21 haur dira 0-1 urtekoak. Ikastolak herriko haurren %40 matrikulatzen du.

Aurtengo Araba Euskaraz jaiak dituen helburu nagusia kondoko hauek dira:

1) Haur Hezkuntzako umeentzako egoitza egokia

Urteetan barrokoi zahar batzuetan egon eta gero, Aresketaren proiektua ganoraz garatu ahal izateko haur hezkuntzako umeentzako egoitza berria eta beronen egokitzapen duina lortzea.

2) Jolasteko leku bat... baina busti gabe

Eguraldia txarra denean ikasleek

ezin dute inolako jarduera egin kailean ez baitute inongo patio estalirik. Berau eraikitzea da beste xedeetako bat.

3) Euskara, jalgi hadi Arabara

Abestiko "zazpigarren alaba" omen den honetan ikastolen hezkuntza proiektua garatzea ezinbestekoa da. Hegoaldeko lau probintzietan biztanleria gutxien duen herrialdeaz ari natzaizue, eta zer esanik ez, euskaldun edota euskaldun-gai kopuruaz ari bagara. Arabako ikastolak, Nafarroan eta Iparraldean ez bezala, zenbait laguntza eduki ahal izanagatik herri arabar gehienetako euskararen egoera ez da behar-lukeena. Araba euskalduna lortu ahal izateko lan mardula geratzen zaigu: ekiozu bideari gurekin batera urrats berri bat emanez.

Hau da, beraz, aurtengo edizioak planteatzen duen erronka. Baina aurrera egiteko denon inplikazioa, denon ahalegina behar-beharrezkoa dela garbi dago eta horrexegatik, hain zuzen, 'Ekiozu bideari' lelopean egingo da ekainaren 19an arabarron jaiak ez ezik Euskal Herriko euskaltzale guztion jaiak den Araba Euskaraz. Ekiozu euskararen bideari, ekiozu ikastolen bideari, ekiozu Araba berreuskalduntzeari, ekiozu Amurrion eta Araban dugun egoera aldatzeari, ekiozu ekainaren 19an Araba Euskarazko zirkuituaren bideari.

Anima gaitzen, beraz, eta Amurrion parte hartzeaz gain, erabili dezagun euskara eta zazpigarren alaba omen den Araba euskaldundu dezagun denon artean.

Π.Ι.τ eta zorabiok, geu aldizkariaren 150. aleko jaiari

Ospatzeko modukoa da, eta ospatuko dugu. GEU aldizkariaren 150. aleak ospakizun berezia merezi du, eta izango du. Hilaren 17an jai berezia egingo dugu Azkena aretoan, bi gonbidatu berezirekin: Zorabiok taldearekin (21:30ean) eta TTLTrekin (22:30ean).

RAFA RUEDA, TTLTko abeslaria

"Biluztu egin gara eszenatokiaren gainean eta konposatzerakoan"

[edurne begiristain]

Ekainaren 17an Gasteizen joko duzue. Zein kanta eskainiko dizkiguzue? Game Over azken diskoarenak soilik?

Azken kontzertuetan egiten ari garen moduan, gehienbat azkenengo diskoa joko dugu, baina abesti zaharragoak ere eskainiko ditugu. Gainera, orain hirukotea garenez, moldaketa berriak egin ditugu abesti zaharrekin.

Aitor Abio teklatu-joleak taldea utzita, behin baino gehiagotan esan duzue etapa berri baten hasieran zaudetela.

Aldaketarik nabarmenena da teklatu barik ibiltzen garelako orain. Hasi ginenean diskoa prestatzen, Aitorrek taldea utziko zuela esan zigun, eta beraz bera gabe grabatu genuen diskoa, etapa bat nolabait itxiz. Orain zuzenekoan gehien ikusten dena da kontzeptua apur bat aldatu egin dela, sinpletu egin dela, agian rockanroleroagoa dela taldearen soinua, eta moldatu egin behar izan ditugu kantak hirukote formatura. Baina oso gustura gaude. Aldaketa hortik doa, hots, funtzionatzeko modua aldatu dugula. Nik uste dut biluztu

egin garelako bai eszenatokiaren gainean, bai konposatzerakoan ere.

Taldeak aro berri bat hasi duela esan daiteke, orduan.

Bai, nahi eta nahi ez. Berez, instrumentuak gutxiago dira, eta kantak beste modu batez egin behar dira. Eta horrek ezinbestean estiloa aldatu egiten du... Guretzat oso positiboa izan da, gure arteko harremana askoz ere estuagoa delako orain. Eszenatokiaren ere oso hurbil gaude bata bestearengandik.

la hamar urte daramatzazue taula gainean. Bost disko dituzue kalean.

Atzera begira jarrita, zer ikusten duzu?

Musika egoera nola dagoen ikusita hamar urte irautea, pozik egoteko modukoa da. Beste alde batetik, hainbat bizipen ditugu talde moduan, lagun artean, eta hori mantentzea hamarkada baten ostean, kontuan hartzekoa dela uste dut. Hasierako txispa hori benetakoa zela ikusten da, ez dela egun bateko kontua izan.

Musikari dagokionez, bilakaera ere sumatuko duzu.

Bai, normalean beti gustatu zaigu gure burua ez kopiatzea. Nahiz eta taldearen soinuari eutsi, nahiko esperimentalak

izan gara, disko batetik bestera aldaketa nahiko nabariak daudelako. Horrek erakusten du ikertzeko nahi hori mantentzen dugula eta bizirik gaudela, gauza berriak egiteko gogoia badugula, bai eta arriskatzeko nahia ere. Uste dut arriskua desagertzen denean, proiektu bat hiltzorian dagoela. Arriskua baita taldea fresko mantentzen duen elementua.

TTLn ez ezik, bakarkako ibilbidea ere jorratu duzu. Nola uztartzen dituzu taldeko eta bakarkako bideak?

Epeka nabil, TTLTrekin nagoenean bestearekin moztu egiten dut, eta aldrebes. Orain urrira bitartean taldearekin kontzertuak ematen ibiliko naiz, eta otsaila aldera bakarkako bigarren diskoa aterako dut. Antolaketa kontua da, proiektu bakoitzari bere denbora eskaini, eta denbora hori ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatu.

Zein alde ikusten duzu taldean eta bakarrik ibiltzearen artean?

Bakarkako kontua askoz ere pertsonalagoa da. Bakarkako diskoan erantzukizun gehiena nire esku dago, eta horrekin batera babes gutxiago ere sentitzen dut, muga asko gainditu egin behar izan

ditut, eta pertsona moduan ere niretzat kriston erronka izan da. Estilo aldetik, argi neukan bakarkako diskoak nahiko desberdina izan behar zuela taldearekin alderatuta. Betidanik izan dut oso gustukoa musika poperoa edo lasaia, eta horrek aukera eman dit nire fazeta hori garatzeko.

Asko kosta zitzaizun kantatzeko erregistroz aldatzea? Ahots urratu eta oihuetatik, ahots melodiatsu eta gozoagoetara igarotzea?


Bai, kostatu egin zitzaidan ahotsari ahalik eta etekin gehien ateratzea. Nahiz eta betidanik musika hori entzun, zuritik beltzera pasa nintzen oso denbora gutxian. Orain neure burua sendoago ikusten dut halako gauzak egiteko, eta polita da aldaketa egitea, azken batean ibiltzea eta ohitzea da.

TTLT eta bakarka ez ezik, beste hainbat egitasmotan ere aritzen zara, Zaharregia, Txikiegia agian proiektuan kasu. Esperientzia berrietara irekita zaudela argi dago.

Bai. Oteizak behin esan zuen gizakia poliedrikoa dela, alderdi asko dituela. Nik berdin pentsatzen dut. Ez dut uste proiektu bakar bat zure alderdi guztiak erakusteko eta asetzeko nahikoa izan daitekeenik. Uste dut beharrezkoa dela grina hori probatzea eta gauza desberdinak egitea. Modu horretan pertsona moduan ere osotasuna bilatzen duzu, batean falta duzuna bestean lortzen duzulako. Gauza desberdinetan ibili nahiz betidanik, eta nire burua orekatzeko oso baliagarria izan da.

Otsailerako zure bakarkako bigarren diskoa kalean izango duzu. Nolako izango da?

Asmoa da zabaldu dudana bidetik abiatzea. Nire buruarengan konfiantza gehiago daukat, eta hori diskoan nabaritutako dela pentsatzen dut. Musika estiloari dagokionez, pentsatzen dut aurreko ildo horretatik abiatuko naizela. TTLTrekin, berriz, urrira arte kontzertuak ematen jarraituko dut.



[arg.: edorta sanz]

RAFA RUEDA aski ezaguna da Euskal Herriko musika munduan. Mungiako musikariak ia hamar urte daramatza TTLT taldeko abeslari eta gitarrajole moduan. Game Over da taldeak abenduan kaleratu zuen bosgarren lana. Taldeko babesa utzi, eta bakarkako ibilbidea ere jorratu du Rafa Ruedak, Ke artean lanarekin. Eta bestelako egitasmoetan ere parte hartu du, Zaharregia Txikiegia agian ikuskizunean, esaterako. Egitasmo desberdinetan ibiltzea bere burua "orekatzeko" baliagarria dela iritzi dio.

XABI ARAKAMA, Zorabiok taldeko kidea

"Gure ikuskizunak disziplina behar du"



EKAINAK 17, OSTIRALA.
AZKENA ARETOAN.
21:30ean

TTLT, ZORABIOK, isdeo,
euskal musika
dantzagarria...

SARRERAK: 10 euro, aldez
aurretik | 12 leihatilan
(lehen kontsumizioa, 2€)

SALMENTA-TOKIAK:
Arriaga, Frudisk, Tipo,
Gong Lakua eta Azkena

Duela urtebete inguru sorturako egitasmoa da Zorabiok. Egitasmo bitxia eta berritzailea dela ezin uka. Nola eta zerga "Gure ikuskizunak disziplina behar du, batez ere erritmoetan" tik sortu zen proiektua?

Mikel Albisu eta biok Musiken-en, Euskal Herriko goi mailako musika ikastegian, elkartu ginen, musika tradizionalaren ikasketa atalaren barruan. Elkar ezagutu genuen, txalaparta jotzen, eta biok kezka bertsua geneukan, hots, txalaparta betiko

testuingurutik ateratzeko gogoia geneukan eta zerbait berria sortu. Txalaparta musika elektronikoarekin nahasteko ideia otu zitzaigun, baina ez orain arte egin den moduan, hau da, edozein abesti elektronikoren gainean txalaparta joz. Gure ideia oso bestelakoa zen: txalapartarekin abestiak atera nahi genituen eta musika horren gainean programazio elektroniko guztia egin, guk egindako konposizioen arabera betiere.

Eta nolatan bururatu zitzaizuen capoeira zuen egitasmoan sartzea?

Iruñeko capoeira talde bat ezagutu genuen aurrerago, eta hiru kultura desberdin uztartzea bururatu zitzaigun: Brasilgoa, mugimendu elektronikoa eta gurea, txalapartarekin. Ideia nagusia horixe izan zen, eta kontzertu handitan sartzeko ideiarekin ekin genion. Izan ere, orain arte hemengo musika talde askoren kontzertuen hasieran txalaparta erabili ohi da, eta gure ideia zerbait laburra, ordu erdiko, eskaintzea izan zen; laburra baina aldi berean indar askokoa, ikuskizun handikoa, mugimendu handikoa... Hori da ideia.

Zeozar argitaratu al duzue?

Bai, maketa bat dugu kalean, bideoklipa barne. Harat-honat gabiltza kontzertuak eskainiz: hemendik gutxira Kataluniara goaz, Suitzan egon gara... Aurrera begira disko bat grabatzeko asmoa ere badugu, baina disko hori berezia izatea nahi dugu. Hórretan ari gara. Zuzenekoak ere lantzen eta hobetzen ari gara, eta hemendik aurrera multimedia ikuskizun bat ere erabiltzen hasiko gara. Proiektore bat jarriko dugu, pantaila erraldoi batekin eta bertan Euskal Herriko zein Brasilgo argazkiak eta irudiak agertuko dira. Hori guztia zuzeneko irudiekin batera uztartuko

du, batez ere erritmoetan"

da, eszenatokian bertan jarritako kamara baten bitartez.

Eta Gasteizen, ekainaren 17an eskainiko duzuen ikuskizuna nolakoa izango da?

Egun horretarako ez dugu multimedia ikuskizuna prest izango, zoritxarrez. Dena dela, ikuskizuna orain arte eskaini duguna izango da, alegia, ordu erdiko ikuskizuna. Hasieran txalapartarekin hasiko gara, gero capoeira ikuskizuna etorriko da eta bukatzeko musika elektronikoa, capoeira

eta txalaparta batera joko ditugu.

Zer-nolako harrera izan duzue orain arte publikoaren aldetik?

Oso ona. Oso harrera polita egin digute. Jendea ez dago ohituta horrelako ikuskizunetara, eta gehienbat capoeirak arreta handia bereganatzen du. Egia esan, harrera ezin hobea izan dugu orain arte.

Zaila al da musika eta kultura mota hain desberdinak uztartzea?

Uztarketa hori bilatu egin behar da. Ez da erraza, dena dela. Baina ideiak argi badituzu

nahiko erraz atera daiteke, daukazu asmoa edo ideia bilatuz joan behar da. Zehatza izan behar duzu, lan egin behar da, gauzak berritzea oso zaila baita ia dena egina dagoelako. Badago musikaren gainean txalaparta inprobisatzen duenik, baina gurea oso desberdina da. Jotzen ditugun kolpe guztiak neurtuta daude, eta capoeirako pauso guztiak musikaren arabera neurtuta daude.

Beraz, dezente entseiatu behar izango duzue.

Bai, ez ditugu abesti asko, baina disziplina asko behar da batez ere erritmoak behar bezala eramateko. Teknikoki ere neurtu egin behar da, baita denbora ere.

Eta bukatzeko, etorkizunari begira zer espero duzue? Zein egitasmo duzue?

Entseiatu eta kanpora begira jarri nahi dugu. Oso zaila da Euskal Herritik ateratzea, baina gauza dezente ari gara egiten horri begira •



xabi arakama, ezkerrean

ZORABIOK capoeira, musika elektronikoa eta txalaparta uztartzen dituen egitasmoa da. Xabi Arakama da taldeko arduradunetako bat. Duela urtebete sortu zuen egitasmoa Mikel Albisurekin batera. Txalapartarekin musika berritzailea eta esperimentalak sortu nahi izateak Zorabiok eratzera bultzatu zuen bikotea. Ordu erdiko ikuskizuna eskainiko dute Gasteizen, inor axolagabe utziko ez duen ikuskizun berezi eta dibertigarria. Xabik ikuskizunaren gaineko zehaztasun gehiago eman dizkigu elkarrizketa honetan.

Euskal Herriak bere eskolak, euskaldunontzako hezkuntza sistema propioa laboratuz

Euskal Herri osoko ikasle, irakasle, guraso eta hezkuntzarekin arduraturik dauden hainbat herritar gure herrialdeko hezkuntza-aren alde lan egiteko bildu egin dira, egun 'Euskal Herriak bere eskola' deritzan herri ekimenan, hain zuzen. Euskal Herrian hezkuntza sistema propioa eratzea litzateke euren helburu nagusia.



raul insagurbe, araban jarduten duen ehbe-ko kidea

[arg.: edorta sanz]

[saioa fdz de arangiz]

Horretarako, herri bakoitzak dituen hezkuntza beharrak aztertzeke eta asetzeke, tokian tokiko taldeak sortu dituzte. Hala, 'Gasteizek bere eskola' taldea gure lurraldeko gabeziak konpontzen saiatzen da, besteak beste, Lanbide Heziketa euskaraz ikasteko dagoen eskaintza urria.

Orain dela 3 urte, hezkuntza sistema propioaren alde Altsasun egin zen bileran jaio zen 'Euskal Herriak bere eskola' (EHBE) herri mugimendu intersektoriala eta intersegmentala. Hau da, hezkuntza arloan mugitzen diren sektore desberdinak dira talde honen partaide, hala nola, ikasle, irakasle, guraso eta hezkuntzarekin arduraturik dauden herritarrek eta eskola publiko zein pribatuko eta hezkuntza ziklo ezberdinetako agenteek hartzerik gabe. Esan bezala, azken xedea Euskal Herri mailako hezkuntza sistema propioa sortzea izango litzateke, baina horretarako 5 dira jorratu beharreko helburuak; haur eskola euskalduna, hezitzailea eta herritarra bihurtzea; eskolak guztiz euskalduntzea; eus-

kal eskoletan euskal kurrikuluaren alde egitea; lanbide eskola euskaraz eskaintzea; eta azkenik, Euskal Herriko unibertsitatea abian jartzea.

Lan egokia egin nahian, herri eta auzo bakoitzean jardutea aproposena dela dio taldeak, herri bakoitzak dituen hezkuntza beharretatik abiatuz, tokian tokiko helburuak finka ditzaketelako.

Arabaren kasuan, 'Gasteizek bere eskola' taldea arduratzen da, euren iritziz, gure lurraldeko hezkuntza sistemak dituen urritasunak zuzentzen. Raul Insagurbek, EHBeko kidea azaldu duen moduan, "3 dira taldearen erronka nagusiak, hots, taldea bera suspertzea, Lanbide Heziketan euskarazko zikloak indartzea eta testuliburuetan Euskal Herriak duen papera aztertea".

Lehenengoari dagokionez, partaidetza eskatzen du taldeak. "Batetik, taldean bertan lan egin daiteke eta bestetik, denborarik ez dutenek, hezkunde sarearen bidez lagun dezakete, aportazio ekonomikoa eginez; ekimenak egiten dituen ekin-

tza, proposamen eta informazioen berri izango dute. Horrez gain, bazkideek euren ekarpenak egiteko parada izango dute", azaldu du Raulek.

LANBIDE HEZIKETAREN ALDE

Bigarrenik, egun Arabako zein Euskal Herri mailako Lanbide Heziketan euskarazko zikloak egiteko eskaintza urria da taldearen ardura. "Egun-egoera oso larria da", diosku Raulek, izan ere, datuek agerian uzten dute: iaz Araban Lanbide Heziketan eskaintzen ziren heziketa-zikloen artean, soilik %10 zen euskarazkoa. Halarik ere, eskaintza urria ez ezik, ikasleen eskaria murrizta izatea ere bada arazoa. "Horregatik, gure asmoa euskaldunei heziketa-zikloak D ereduari egiteko gonbidapena luzatzea da, euskaraz ikasten jarrai dezatela, alegia. Izan ere, euskararen normalizaziorako ezinbestekoa zaigu lan mundua ere euskaratzea", adierazi du Raulek.

Hortaz, "Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza handitu, irakasleria euskaldundu, materiala euskaratu eta ikasleak D ereduari matrikulatzeko eskatzea" dira, Raulen hitzetan, eman beharreko urratsak. Horretarako, hurrengo urteetan "prestatzeko" eskatzen

Testuliburu egokiak

Azkenik, euskal kurrikuluaren inguruan lan egiten duten heinean, arlo eta maila desberdinetako testuliburuaren inguruko gida ere prestatzen ari dira Euskal Herri mailan. Zehazki, testuliburuak aukeratzeko aintzat hartu beharreko irizpideak jorratzen ari dira. Honela, testuliburuetan Euskal Herria kontuan hartzen den ikertu dute besteak beste, esaterako, fisikako ariketetan adibidetzat jartzen dituzten herriak euskaldunak diren ala ez, mapetan agertzen diren definizioak edota emakumeak aipatutako argitalpenetan jokatzeko duen rola. Raulek esan bezala, "liburu asko aztertu osten, akatsik ez duen libururik ez dagoela ohartu gara. Gehienak itzulpen hutsak dira edo euskara maila txarra darabilte eta horrek ez du Euskal Herria islatzen".

die EHBEk ikastetxei zein Administrazioari, egun DBHko ikasle kopurua handitu dela kontuan hartuz, etorkizunean euskarazko zikloen eskaintza gora egin dezakeelako. "Administrazioari ere diskriminazio positiboa egin dezan eskatu behar zaio. Memento, ratioa jaitsi badu ere, informazio eta publizitate gehiago egin beharko luke", dio EHBEko kideak. Azkenik, zikloak egin ostean, egin beharreko praktikak ere euskaldundu egin behar direla eskatzen du herri ekime-
nak•



3 dira taldearen erronka nagusiak

taldea bera suspertzea

lanbide heziketan euskarazko zikloak indartzea

testuliburuetan Euskal Herriak duen papera aztertzea



KIDS

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

GEU aldizkariak, 150 ale

Geu aldizkariak 150. alea kaleratu du hilabete honetan. Zer ospatu badago. Araba osoan kultura eta gizarte gaiak euskara hutsean jorratzen dituen komunikazio proiektu bakar honek bere esparrua lortu du denboraren poderioz, erreferente garrantzitsua bilakatu. Hori dela eta, zorionik beroena merezi duela deritzogu eta horretarako kalera irten gara hiritarren iritzia jasotzeko asmoz.

[maite lekue eta saioa fdz arangiz]

• Geu aldizkaria ezagutzen al duzu? • Ekainean 150. alea kaleratu da. Zoriondu nahi zenuke? Zergatik?



Aratz Castresana, ikaslea

Bai, etxean jasotzen dut. Egia esan; ez dut askotan irakurtzen, bakar-bakarrik erreportaia interesgarri bat argitaratzen dutenean, baina batez ere gaintik ematen diot begirada.

Bai, aldizkaria egiten dutenak zoriontzen ditut, Araban lurraldeari buruzko euskarazko aldizkari gutxi dagoelako eta ale asko egin dituztelako. Horrez gain, oso ondo iruditzen zait ospatuko duten festa.



Gemma Alvarado, administraria

Bai, ezagutzen dut. Garai batean etxean jasotzen nuen. Egun, normalean tabernetan eta irakurri ohi dut.

Bai, ospatzekoa da! Nire ustetan, Gasteizen euskararen alde lan egiten duen aldizkaria egotea oso garrantzitsua da eta betetzen duen lana polita eta inportantea dela uste dut.



Alberto Ibarreta, Naibe museoko ordenantza

Bai, aspaldi ezagutzen dut eta tabernetan irakurtzen dut normalean, ez bainaiz inoiz harpideduna izan.

Nire zorionik beroena ematen diot! Segi horrela! Beste 150 ale gehiago argitaratzea espero dut!

Gereziaren haragia



[patxi zubizarreta]

Gure auzunean izozki denda zoragarri bat dago. Hara sartzea Ali Babaren kobazuloan barneratzea bezalako zerbait da. Eta, hara sartzearekin batera, begiak jauzika hasten zaizkit: txokolate beltzetik zurira, marrubitik limoira, bainilatik gerezira, jogurtetik kafera... Eta mihia listua dariola hasten zait, tripa zorriak hoska.

Gure auzunean fruta denda zoragarri ugari dago. Haietara sartzea paradisuari sartzea bezalako zerbait da. Eta, hara sartzearekin batera, orain, begiak neguan kasik debekaturik egon diren kolore gorrietara joaten zaizkit: sagarretara, marrubietara, nektarinetara eta, batik bat, gerezietara... Eta mihia listua dariola hasten zait, tripa zorriak hoska.

Hala bada, gaurkoan gereziak erosi ditut. Gereziak gozoak zaizkit, samurrak, lizunak. Are lizunagoak Manuel Rivasen '¿Qué me quieres, amor?' ipuin liburua irakurri nuenetik (neure ustetan, liburudendak izozki eta fruta dendak bezalakoxeak dira, batzuetan baita erakargarriagoak ere, besteak beste urte osoan zabalik eta aukeraz -gorriz- beterik egoten direlako). Eta gaurkoan ipuin bateko protagonistak bezala jokatu dut: goizean, gerezi bat eskaini diot eta berak ahora eraman du. Berak begi beroekin begiratu dit, bekatu begiekin, eta bitartean bere egin du gereziaren haragia. Ustekabean, musu eman dit, eta musuarekin batera, gereziaren hezurra. Eta ni txora-txora eginda joan naiz, egun osoan gereziaren hezurrarekin hortzen teklatuan musika eginez. Eta ez naiz aspertu. Eta gauean esan diot: "Badut zuretzat zerbait, maite". Eta bere ahoan gereziaren hezurra utzi dut. Zeren gereziak gozoak baitzaizkit, samurrak, lizunak•

Nerea Sastre Ibargutxi

"Euskara txikitatik maitatzen irakatsi zidaten"

Mallorcan jaiotako neska alai eta baikorra dugu Nerea. 16 urte zituela familiarekin Gasteiza etorri zen bizitzera. Urtebete pasata, haiek irlara bueltatzea erabaki zuten Nereak hemen gelditzea aukeratu zuen bitartean. Gaur egun hezitzailea da etxe funtzional batean eta gazteekin egiten du lan.



[arg.: edorta sanz]

[maite lekue]

Duzun biziorik handiena?

Txokolatea.

Eta bertutea?

Egjazaletasuna.

Bizitzari zèr eskatzen diozu?

Osasuna, bizitzaz gozatu ahal izateko.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Laguntasun ezak.

Geu elkarte eta aldizkariaren berririk bai?

Bai noski!

Egunkari bat?

Gara.

Telebista saio bat?

Bertatik Bertara.

Fobiarik, beldurrik?

Klaustrofobikoa naiz eta beldur itzela diet arratoiei.

Oporrak non eta zertarako?

Oporrak edonon emango nituzke. Oporrak danetarako dira, hondartzan

atseden hartzeko, beste kultura batzuk ezagutzeko, mendian ibiltzeko...

Eta nora ez zinateke joango?

Uste dut joango ez nintzatekeen lekurik existitzen ez dela.

Liburu bat?

Behin baino gehiagotan irakurri ditut Jorge Bucayrenak eta azken aldiak gustatu zaidan bat 'La sombra del viento', Carlos Ruiz Zafonena.

Kolore bat?

Berdea.

Musika talde bat?

Zaila galdera (kar, kar), estilo ezberdinak gustuko ditut eta. Amaralaren azken diskoa gustatzen zait adibidez, Gatibu, Ken 7... Kantautoreak ere izugarri entzuten ditut.

Zer da Gasteizek duen onena?

Jendea dudarik gabe. Niretzako

hiriak bertan bizi diren pertsonen egiten dute, nik lagun onak aurkitu ditut Gasteizen.

Eta txarrena?

Etxebizitzaren prezioa.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

Gaur egun ehuneko ehuneko euskaraz bizitzea ez da posible.

Amets bat?

Dirua izatea munduan zehar bidaiatu ahal izateko.

Amesgaizto bat?

Lasai asko lo egiten dut normalean. Hilabetearen amaierara iristea izan ohi da esna naizenean dudak amesgaiztoa (kar, kar).

Zer eskatzen du herriak?

Gasteizen espekulazioarekin amaitzea, etxebizitza duinaren eskubidea bai, baina prezio duinean eskaintzea jendeari•

"hizkuntza bat sentitzea da berau ikasteko urratsik garrantzitsuenak".

Mendira joatea, lagunekin izatea, irakurtzea, musika entzutea eta dantzatzea da bere aisialdiaz gozatzeko aukeratzen duena

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Ekainak 17, OSTIRALA

GEU

Aldizkariaren
150. aleko

JAIA

AZKENA Aretoan 21:30ean

capoeira
txalaparta-alboka-trikia
techno-musika
IKUSKIZUNA

P.L.T
kontzertua

irudi-proiekzioak, **isdeo**
euskarri musika dantzagarria

SARRERAK: 10€, aldez aurretik | 12€ leihatilan | (lehen kontzertua, 3€) SALMENTA-TOKIAR: Arriaga, Prudiak, Tipu, Gong Lakua eta Azkena

PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 · GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatuak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 ifnoa. 945 25 02 39

DaIvez

argitarazleak

www.dalvez.com
945.245.269 - 652.776.509

GASTEIZ

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo
teknologiak bakarrik berma dezakete
ongi egindako lana. Zerbitzu osoa,
norberaren neurrira, hurbila eta saiatua.

Horixe duzu gure
konpromisoa.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

NE NÁHUAT NEMI YULTUK NAWAT hizkuntzak bizirik dirau

Globalizazioaren aro honetan, hizkuntza gutxiagotuek traba larriak dituzte bizirik irauteko. Euskaldunok aski ezagutzen dugu ezbehar hau, hala ere, ez gara bakarrak. Izan ere, Ameriketako komunitate indigena askok egoera hau pairatu baitute aspaldi.

saioa fdz de arangiz

Horren adibide, El Salvadorreko Pipil herri indigenaren nawat hizkuntza dugu, azken hamarkadetan jasan duen zapalkuntza gogorra dela bide, desagertzeko zorian baitago. Etorkizun latz honi aurre egin nahian, Nawat Hizkuntza Berreskuratzeko Ekimena jarri zen abian 2003 urtean. Jada, fruituak biltzen hasi da.

Egungo berreskuratze linguistikoei buruzko ikerketa arrakastatsuek diotenez, baldintza, ekintza eta politika zehatz batzuek hizkuntza gutxiagotuen berreskuratzea ahalbidetu dezakete; beste batzuek, ordea, prozesu hori galarazi. Honekin batera, banakako ekintzek, elkarteek zein erakundeek ere zeregin handia izan dezakete.

Egitate hau aintzat hartuz, Nawat Hizkuntza Berreskuratzeko Ekimena (IRIN, Iniciativa para la Recuperación del Idioma Náhuat) eratu zen 2003 urtean El Salvadorren, zehazki, Sonsonate eskualdean. Urte horretako irailaren 27an buruturiko bileran jaio zen elkarre arte aske hau, bertako partaideek argi asko ikusi zutelako hizkuntza gutxiagotu >>





**adibide gutxi batzuk
nawatez**

**Tesu ninemi nusel,
Ez nago bakarrik**

**Nunan, nimemi nin
Amatxo, hemen nago**

**Tay timunekit? Tesu
tatka timunekit
Zer falta zaigu? Ez zaigu
ezer falta**

**An shikita
Orain begira**

>> honen berreskuratze prozesuan ezinbestekoa zela gizarte barnetik zein komunitate indigenatik lan egitea.

HIZKUNTZA BATEN OSASUN TAMALGARRIA

Nawat hizkuntza egunotan aipatutako herrialdean bizirik dirauen hizkuntza indigena bakarra dugu, Pipil komunitatea indigenaren hizkuntza, alegia. Gaur egun, hizkuntza honen egoera zeharo larria da; neurriak hartu ezean, desagertzea errealitate bilakatuko da. Antza denez, 200 bat hiztun ditu hizkuntzak, gehienak 50 urtetik gorakoak eta batez ere Sonsonate eskualdean bizi direnak. Dena den, hiztun kopurua kalkultzea ez da lan makala, beldurra dela eta, hainbat indigenak ez baitute hizkuntzaren erabilera publikoki onartzen. Egoera honen sorburua historiaren pasadizo latz batean topatzen dugu. Izan ere, 1930eko hamarkadan herriaren zati handi batek bizi zuen egoera ekonomiko eta sozialaren ondorioz, aurrera eramandako herri matxinada gogor zigortu zuen Maximiliano Martinez jeneralaren diktadurak. Gauzak horrela, indigenen nortasun kulturalaren aurkako ekintza gogorak nagusitu ziren, hala nola, nawatez hitz egitea edo ohiko arropak janztea. Uste

denez, 10.000tik 30.000 bitarteko indigena erail zituzten garai hartan.

Egunotan, ez da halako sarraskirik errepikatu, hala eta guztiz ere, kontuan hartzekoa ere bada Ertamerikako herrialde txikiaren egoera sozio-ekonomikoa. Aberastasunaren banaketa gero eta desorekatuagoa da eta txiroak gero eta gehiago dira, halarik ere, gobernuak ez dio arazo honi irtenbiderik ematen. Hortaz, ezegonkortasun honi aurre egin nahian, gizarteak garapenerako egitasmoei ekin die, arlo txiroenei gobernuak ematen ez dien gutxieneko laguntza emateko. Hauen artean, IRIN ekimena.

PIPIL HERRIAREN LAGUNTZA, EZINBESTEKOA

Hizkuntzaren berreskuratze prozesuan komunitate pipilaren laguntza ezinbestekotzat jotzen du IRIN elkarteak, hala, indigenen partehartzea eta nabarmentzea bultzatzen duten ekintzei ematen die lehentasuna. Bere xedea lortzeko, anitzak dira martxan jarri dituen ekimenak, hala nola, IRIN elkartearen pipilen eta nawat hiztunen arteko bazkidetza ziurtatzea zein batzordeetan parte hartzeko aukera ematea. Horrez gain, informazioa, prestakuntza eta lan eskarmentua eskaintzen dizkie pipil herriari

NARDI GOMEZ. GASTEIZTAR BAT EL SALVADORREN

Nardi Gomez El Salvadorren IRIN proiektuan lan egiten duen gasteiztarra dugu. 1973. urtean jaioa, Kazetaritza ikasi eta Ingalaterran eta Bartzelonan bizi izan zen, inoiz ere kazetari lanak eginez. Izan ere, soziologia eta hezkuntza arloan murgildu zen, besteak beste, atzerritarrei hizkuntza ikastaroak emanez. 2004 urtean, berriz, El Salvadorrera bidaiatzea erabaki zuen. Bertan, Sonsonate eskualdera heldu zenean IRIN egitasmoaren berri izan bezain laster, Alan King-ekin jarri zen harremanetan. Gauzak horrela, nawat hizkuntza berreskuratze ekimenean murgildu zen erabat, antolamendu, proiektuen kudeaketa eta harreman publikoen arloetan bolondres gisa lan eginez.

"Pipil indigenek El Salvadorren euren egoera hobetzea da nire nahia, ez bakarrik egoera ekonomikoa, baita euren egoera soziala eta politikoa ere. Horrez gain, nawat hizkuntza berreskuratu nahi dut, indigenen kulturari mesede egin nahian. Herri hau zeharo ahaztuta dago eta pipilen nortasuna berreskuratzea funtsezkoa da. Ez dut atsegin egungo munduaren funtzionamendua. Espainolek garai batean hona etorri eta indigenen kultura suntsitu zuten. Egun, egoera tamalgarri hori ez da aldatu eta zerbait egin beharra dago. Nire ustetan, gainera, asko ikas dezakegu herri honetaz", azaldu digu Nardik.

nahiz eurengandik hurbil sortutako talde eta gizabanakoei ere.

Bestetik, elkarteak eskuragarri dituen baliabideak aintzat hartuz, hizkuntza berreskuratzeko beharrezkoak diren arlo desberdineko batzordeak eratu ditu: Hizkuntzaren Batzordea, Material Didaktikoen Batzordea, Heziketa Batzordea, Informazio eta Koordinazio Batzordea eta, azkenik, Argitalpenen Batzordea.

Memento honetan, behin-behineko batzordeak eta 20 partaide inguruk osatzen dute elkarteak, bertako zein kanpoko jendeaz osatua; batzordeko kide guztiak El Salvadorreko nawat hiztunak izateaz gain, irakasleak dira eta sorterriko kulturaren alde lan galanta egin dute. Genaro Ramirez Vazquez presidentea, adibidez, nawatez literatura idatzi duen hiztun bakarra dugu.

Gaur egun, IRIN elkarteak bere egitasmo guztiak aurrera eramateko behar duen finantziarioan lagunduko dion legalizazio prozesuan murgilduta dago. Era berean, bere zereginetan lagun diezaioten, El Salvadorretik kanpoko bazkide edo laguntzaileak aurkitzen ahalegintzen da elkarteak. Xede horri helduz, Euskal Herriko Kia Weli! taldea jaio zen. Izan ere, elkarteak argi asko utzi nahi du ateak zabal-zabalik daudela bere harri koskorra erantsi nahi duen ororentzat •



gasteizen egindako IRINen aldeko bazkari multikulturala

ALAN KING, HIZKUNTZA MINORIZATUEN ALDE



1978. urtean Euskal Herrira bizitzera etorri zen hizkuntzalari ingeles honek, ez zuen bitan pentsatu eta euskara ikasi zuen buru-belarri. Askorentzat arraroa badirudi ere, guztiz euskaldundu ostean, euskararen inguruko lan eta ikerketei ekin zien. "Hizkuntza txiki, minorizatu eta gutxiagotuen dokumentuen ikasketak eta ikerketak betidanik izugarri erakarri nau", aitortzen du Alanek.

Euskal Herrian hainbat urtez euskararen berreskurapen prozesuan murgilduta eta parte hartzen egon ondoren, 2002 urteko azaroan joan zen El Salvadorrera, Don Bosco Unibertsitatetik, nawat eskoletan irakasteko programaren proposamena jaso zuenean, hain zuzen. Gauzak horrela, proiektua martxan jarri eta 2003ko irailean IRIN ekimena eratu zuen, besteak beste. "El Salvadorrera joan nintzenean, neura lana eta esperientzia eskaini nahi izan nuen, ahal izanez gero bertako hizkuntza minorizatuena alde zerbait egiteko. Egun, nawat ikasteko eredu baten bila gabiltza, eta nik uste, euskaldunen esperientzia kontuan hartzeko erreferentzia izango litzateke. Nire bizitza profesionalean ezagutu ditudan metodo eta ereduak esker, harako balio dezakeen ereduaren oinarriak bilatu ditut, baina ez bakarrik hizkuntza bat irakasteko ereduak; hizkuntza bat berreskuratzeko bideak ere ulertzen eta egokitzen saiatu naiz pipilen kasuari aplikatu ahal izateko", azaldu du Alanek.



KIA WELI! TALDEA

Kia Weli! taldea (egin daiteke! nawat hizkuntzan) El Salvadorreko nawat hizkuntza berreskuratzeko ekimenak eta ahaleginen alde egiteko xedeaz eratu zen. Hori dela bide, IRIN elkarteari baliabideak eta laguntza helaraztea du helburu nagusizat, hala nola, laguntza ekonomikoa, giza baliabideak eta baliabide teknikoak. Horretarako, elkarteak euskal erakunde publikoen laguntza lortzeaz gain, euskal gizartearen baitan elkartasuna suspertzeko saialdiak egin ohi ditu.


Asko dira, bestalde, elkarteak abian jarri dituen jarduerak; nawat hizkuntzaren ikerketa eta garapena, hedatzeko material didaktiko egokiak prestatzea eta banatzea, hizkuntza irakasteko programak eta egiturak eratzea, pipil herrian nawat ikasteko nahia zabaltzea, eta aipatutako ekintzetan parte hartzeko pertsona egokiak irakastea, besteak beste.

Izan ere, nawat hizkuntzaren egoera eta pipil herriari buruzko informazioa euskal gizarteari jakinaraztea ere bilakatu da elkartearen zeregin, baita informazio eta kontzientziazio kanpainak burutzea ere.

Iker Ortiz de Zarate, aktore eta zuzendaria

Euskabaret, kabareta Gasteiz

Iker Ortiz de Zarate gasteiztarra bere jaioterrira bueltatu zenetik urtebete pasa ez den arren, egun 35 urte dituen aktoreak bere ikasketak eta jakituria islatzeko Euskal Herri osoan urtarriletik mugitzen ari den "Euskabaret" ikuskizunarekin tokia aurkitu duela ematen du.



[josune v. de mendizabal]

Gazte zela alde egin zuen Iker Ortiz de Zaratek Euskal Herritik aktore ikasketak burutzeko eta ordutik hamabost bat urte pasa dira. Denbora luze honetan Parisen, New Yorken eta Madrilan egon da 35 urteko gasteiztarra trebatzen eta lanean. "Pena handiz alde egin nuen, nik ez nuen joateko gogorik baina garai hartan hemen ikasteko aukerarik ez neukan, eta gauza asko ikasi ditut eta leku asko bisitatu, baina bertako gauza asko ere galdu ditut", onartu du Ortiz de Zaratek.

Ikerrek egin zuen lehendabiziko papera Michael Winterbottomnek eskaini 'Under the sun' antzezlanean izan zen. "Oso gaztea nintzen eta ez nengoen prest pertsonaia hori egiteko baina izugarrizko zorrea izan nuen" gogora ekarri du. Ondoren 'El Dorado' telesailan aritu zen. Aktore moduan hainbat eta hainbat paper egin baditu ere, azkenaldi honetan zuzendari lanetan ere murgildu da. "Lagun gutxi dago eta egokitu beharra dago aurrera egiteko. Nire bokazioa aktorea izatea izan da betidanik, baina Gasteiza bueltatzeko asmoa izan nuenean ikusi nuen bertan lana topatzea erraza ez zela. Ondorioz pentsatu nuen antzerki irakasle izan nintekeela. Baina horretarako ere zerbait gehiago behar dela uste dut eta orduan itzulera lau urtez atzeratu nuen, Kent in Canterbury unibertsitatean horretarako ikasten eman nuen denbora, alegia". Egun, aktore, zuzendari eta irakas-

tik Euskal Herrira



lea izateaz gain aurkezle izatea ere tokatu zaió (Gasteizko Europako Zine Berriaren Jaialdian eta Donostiako Zinemaldian).

KATARBELTZ KLUBA

Gasteizko aktore talde batek proposatuta hasi zen iragan urrian Iker Ortiz de Zarate 'Euskabaret' izeneko lana zuzentzen. Bi hilabete entseietan eta Gasteizen bertan estreinatu zuten urtarrila aldera, orduetik Euskal Herriko hainbat tokitan izan da ikusgai antzezlana eta aldi berean oso kritika onak ere jaso ditu. "Prestatzen ematen dugun denbora ez da sekulan nahikoa izaten baina luzatuz gero tentsioa galtzen doa, gauzak moteltzen dira eta azkenean ez da inoiz aurrera egiten -azaldu du Ikerrek-. Hortaz, estreinaldirako presioa beharrezkoa da".

'Euskabaret' lanak 30eko hamarkada inguruko kabaretaren isla du oinarri. Zuzendari gasteiztarrak garai hartako komedia eta musika ukituak gaur egungo gizarteko eta politikako gau nagusiekin nahastu ditu ikuskizun berritzaile honetan. "Alemaniako eta Estatu frantseseko kabaretak eza gutzen ditugu, baina inoiz izan al da euskal kabaretik? Bai, eta Gasteizko Katarbeltz klub dotorea zen lekuko nagusia", dio kondairak. Egia eta gezurraren arteko irudiak eta eszenak tartekatzen dira antzezlana musikal eta komiko honetan. Zer den erreala eta zer irudimena, ordea, ikuslearen ondorioetan besterik ezin du erantzunik topatu.



Aktore lanaz gain zuzendari zereginetan aritu da komedia, barrea eta musika uztartzen dituen antzezlana honetan, eta hori gutxi balitz ekainaren 2an Gasteizko Principal Antzokian 'Antonio eta Cleopatra' Shakespeare-ren antzezlana klasikoa estreinatuko du.

'ANTONIO ETA CLEOPATRA', EKAINAREN 2an PRINCIPAL ANTZOKIAN ESTREINUA

Iker Ortiz de Zaratek lanean temati jarraitzen du eta bere esfortzua fruituak ematen hasi da. 'Euskabaret' formatu txikiko antzezlana bazen, oraingoan beste emanaldi bat jarri du abian. Gasteizko Principal Antzokian estreinatuko da ekainaren 2an eta Shakespeare-ren 'Antonio eta Cleopatra' istorio klasikoan oinarrituta dago.

"(...) hau benetako amodioa bada, esadazu zenbat maite nauzun", dio hasierako elkarrizketak. "Bi amorante hauen arteko istorioa betidanik tragedia bat bezala ikusi izan da. Nik ordea maitasuna heriotzaren gainetik dagoela ulertzen dut obra honetan -aitortu du zuzendariak-. Mundua euren arteko maitasuna neurtzeko oso txikia da eta horregatik doaz biak beste mundu baten bila".

Eszenatokia biluzik erakutsi nahi izan du Ikerrek, Oscar Ruiz de Luzuriagaren argi eta iluminazioaz jantzita besterik ez. Guztira hamalau antzezle izango dira oholtzaren gainean, baita zuzendari musika (alboka eta txalaparta) joko duten zortzi musikari.

'Euskabaret' lanean bezala, oraingo honetan ere Iker euskararen garrantziaz ez da ahaztu eta zenbait esaldi eta hitz tartekatu ditu gidoian. "Bi saio egiteaz gain, hau da, bat gazteleaz eta bestea euskaraz, nik bi hizkuntzak nahasi nahiago izaten dut. Horrela jendea aditzen joango da, gauzak ulertzen, eta akaso jarrera positiboagoa izango du, zerbait piztuko da euren barruan", nabarmendu du.

zinea



fugitivos (les égarés)

frantzia Et erresuma batua

Zuzendaria: André Téchiné.
Banaketa: Emmanuelle Béart,
Gaspard Ulliel, Grégoire Leprince-
Ringuet, Clémence Meyer

Munduko Bigarren Gerraren zoritxarrari so.

Paris, 1940ko ekaina. Alemaniako tropak tinko sartu dira hirian. Odile, irakasle alargunak bere bi seme-alabekin hiriko exodoan parte hartu behar du. Philippe gaztaroan dago, eta Cathy txikiak bakarrik daki hegoaldera doazela. 50 km eta gero, hegazkin alemaniarrak errefuxiatuei eraso egin die. Odile eta bere seme-alabek guzti-guztia galtzen dute.



liburua

pospolo kaxa bat bezala

paxi zubizarreta. pamiela. maiatza-2005

Laura Esquivelek dioenez, pertsona guztiok pospolo kaxa bat daukagu geure baitan eta, horietako bakoitza pizten dugun aldiro, energiak betetzen dugu arima. Alabaina, norberak bere pizgarri propioak ditu (konpainia on bat, kopa bat ardo, poema bat, kantu bat...), eta horiek deskubritu ezean, noiz edo noiz pospoloren bat piztu ezean, kaxa umeldu egiten zaigu, eta ezinezkoa gertatzen da atzera berriz pospolorik piztea.

Literatura pizgarri baldin bazaizu, liburu honetan bost gai nagusi topatuko dituzu zeure kaxako pospoloak pizteko: amodioa, bidaia, mestizaia, literatura eta memoria. Eta gai nagusi horietako bakoitzaren inguruan errezitaldi baterako gidoi bat -testu esanguratsuen aukeraketa baten inguruan- eta bina ipuin topatuko dituzu, batzuk ezagunak 'Hamar mezu eta dei bat' bezalakoak, bestetzuk ustekabeak 'leak bainuontzian' bezalakoak; baina denak ere asaldagarriak, sentsualak eta, batik bat, pizgarriak, zeure barneko pospolo kaxa umeldu ez dadin.

cd-a

xabaltx

sms galduak

gaztelupeko hotsak. maiatza-2005

Hiru urteko etenaldiaren ondoren, disko berria grabatu du Lapurdiko kantari eta musikariak Toulousen, Pascal Garmendia teknikariarekin. Niko Etxarten Kilikas estudioan nahasia, bere laugarren kantu sorta, elektro-pop sailean koka daiteke eta bertan poesia eta soinuk goxoki eta naturalki uztartzen dira. Bi urteko lana bakartasunean osatua hitzen zein musika aldetik, kitarra, kitarrapala, programazioak, teklatura eta pianoa, koroak eta ahotsak berak eginez eta grabatuz.



xabaltx

Zuraiden sortua da, Lapurdin, eta gaur egun Urdazubini bizi da, Nafarroan. Autore, kantu egile, interprete, olerkari eta irrati-esatari, bide zabalekoa da musikaren munduan. Hiru disko kaleratu ditu bakarlarri gisa: Xabaltx & H2O; Zalantzak; Gau erdi pasa eta.

Irlandan pasa izan ditu denboraldiak, bizitzen eta jotzen, beste batzuentzat kantuak konposatzen eta hainbat eszenatokitan emanaldiak eskaintzen. Ekainean, talde berria osatuz hasiko da zuzenean disko berriko kantuak erakusten.

www.hotsak.com



Haur literaturaren balore literarioen gainean

[txabi arnal gil]



Behin irakurri nuen: "liburuak ez dira bakarrik gaiaren esanetara makurtuta erabili behar, baizik eta, batik bat, darizkien balore estetikoak eta literarioak kontuan hartuta". Ados. Konforme. Hala ere, gustuko nuke esaldi hori luzatzea. Eta luzatu egingo dut: "eta balore literarioak, estetikoak zein irudimenezkoak zaintzea izan behar da egilearen zeregin nagusia".

Gaur egun, haur txikientzako liburuetan orain arte tabu izandako hainbat gai agertzen zaigu, esaterako, heriotza, gerra, bakardadea, sexismoa, inkomunikazioa, ekologia, pakea ala agresibitate, besteak beste. Eta, bazen garaia! Dena den, gerta daiteke, eta gertatzen da, egileok behartuta jorrotzen ditugula gai horiek argitaletxeek hori eta horrela eskatzen dutelako. Eta zergatik eskatzen dute? Mundua, gizartea eta familia bera aldatzen ari direlako, eta aldaketa horiek islada izan behar omen dute haur literaturaren munduan. Zergatik? Eskolak, hau da, haur literaturaren bultzatzaile nagusia, hori eta horrela eskatzen duelako. Hezkuntza sistemak gai berritzaile horien premia dauka. Sistemak bere aurpegi itsusiari itxura aldatu nahi dio.

Baina arreta eta kontu handiz ibili gaitezen. Ez dezagun egun bakar batean egin nahi hainbestean zehar egin ez dena. Idatz dezagun aurrean aipaturiko gaietaz, bai, baina balore literario eta estetiko bariko lanak kaleratu bezain pronto baztertuta gera daitezkeela ahantzi gabe.

Beraz, egileok, hausnar dezagun boligragoari ekin aurretik eta zuek, guk, irakurleok, emandako aholkuak har ditzagun kontuan liburua etxera eramane baino lehen. Zergatik? Haur txikientzako liburuek, funtzio didaktikoaz gain, beste funtzio primarioago eta ludikoago batzuk dituztelako: gozatzea, hitzekin jolastea eta emozioaren zein irudimenaren ateak irekitzea, hain zuzen •

www.geugasteiz.com

ekaina-uztailetik aurrera abian izango da geu aldizkaria eta geu elkartearen webgunea. 3 atal izango ditu: batetik, aldizkariari dagokion atala; bestetik, elkarteari dagokiona (bi atalak azken orduko berriez lagundurik); eta azkenik, 'euskararen unibertsoa' deritzana, agenda osatu batez, foro batez eta lynk interesgarriez eraturik, besteak beste. aldi berean, harpidetza zein elkarteko bazkidetza zuzenean egiteko aukera egongo da. gaurkotasanari loturiko atari interaktiboa, dinamikoa eta garbia sortzea izan da xedea.

■ mikel urdangarinen lan berria irailan

gasteiz bizitoki duen mikel urdangarinen kantari zornotzarra disko berria ari da prestatzen une honetan, eta irailerako kalean izatea espero da; betiko estilo eta kutsuari helduko dio oraingoan ere. urdangarinek jada sei disko -eta dvd bat- argitaratu ditu, azkenak 'heldu artean' eta 'zaharregia, txikiegia agian' izenekoak.

■ new york-eko juilliard school gasteizko jazzaldian

vitoria-gasteizko jazzaldiak, bere 29. ediziorako, VI. jazz mintegia antolatu du new yorkeko juilliard schoolekin. 2004an egindakoaren jarraipena da. musika ikasleek eta musikari profesionalek parte har dezakete. chick coreak maisu-klase bat emango du mintegian. aurtengo jazzaldia uztailaren 12tik 16ra izango da, eta, besteak beste, honakoek joko dute: charlie parker legacy, chic corea & touchstone, taj mahal trio, the robert cray band, koko taylor & her blues machine...

■ agurainen 29 'bai euskarari ziurtagiri'

29 enpresa, saltoki eta bestelako entitatek jaso dute dagoeneko kontseiluaren 'bai euskarari ziurtagiria'; euskararen normalizazioa lortzeko konpromisoa lotzen duen agiria da. "aguraingo herritarrok ahalegin handia egiten ari gara herrian euskara sustatzeko, eta bide horretan jarraituko dugu", aditzera eman zuen aguraingo euskara zinegotziak, pello izagirrek.

■ azkaineko 42 bai euskarari ziurtagiriduni omenaldia

euskal gizarte erakundeen kontseiluak eta euskal konfederazioak iparraldeko azkainen 'bai euskarari ziurtagirien' ekitaldia egin zuten maiatzean. bertan, 42 saltegi, ostatu, lantegi, elkarte eta osasun kontsulta omendu zituzten ziurtagiria jaso zutelako. guztira 100 bai euskarari ziurtagiri lortu ditu kontseiluak ipar euskal herrian. mitxel etxeberri euskal konfederazioko lehendakariak honakoa adierazi zuen: "botere publikoek euskara ofiziala egiten ez duten bitartean, herritarrok 'bai euskarari ziurtagiria' bezalako ekintzen bidez ofizialtasunaren alde egin behar dugu".



■ 'piedras armeras de agurain' liburua aurkeztu da

eusko ikaskuntzak eta aguraingo udalak erdi aroko historia eta aguraingo harri armazainetan izandako islaren inguruko ikerketa bat editatu dute, agurain sortu zeneko 750. urteurrena ospatzeko atarian. arabar hiribilduaren jatorriaren inguruko ikerketa garrantzitsua da. juan carlos luzuriaga euskal jatorriko historialari uruguaitarra dugu egilea, eta erdi aroan euskal gizarteak eta batez ere arabar lautadak izandako garapen historikoa aztertzen du.

aguraingo hiribildua 1564 urteko sute batek suntsitu zuen guztiz. bertako biztanleek berreraiki zuten, eta eraikin berrien harri armazainetan (XVI eta XVII. mende bukaeran egindako armari heraldikoak) ikusten da hobekien erdi aroko iragana eta bere ondarea.

■ arabako eskolarteko 10. bertso txapelketako finala

aurretik 3 kanporaketa egin zituzten eta 700 haur eta gazte aritu ziren bertso idatzi eta bat-batean. finalaren egunean 60 bat bertso idazle gazte bildu ziren. gazteenetan aiarako haizea nagusitu zen; laudioko ainitze sagarduik jantzi zuen txapela; eta 2. amurrioko xabier fernandez izan genuen.

bat-bateko finalean, 14 urte artekoetan aramaioko gazteak txapel gosez heldu ziren gasteiza, lehena xabi igoa eta bigarrena mikel serrato aramaioarrak izan baitziren. 14tik 18ra artekoetan, berriz, izar bat izan genuen txapelkun, laudioko izar mendiguren, alegia. bigarren, gopegiko hodei lopez de arkaute. saio bikaina izan zen batez ere azken hau, denak ere oso maila txukunean eta oso erregular aritu baitziren.



gasteizko gaztetxea bota nahi du alfonso alonsoren gobernuak

gasteizko udalak aparkalekua egin nahi du egun gaztetxea dagoen tokian, eta horretarako 'muinoko etxea' botako duela iragarri du. gasteizko udaleko talde politikoetako ordezkariak hitzartu dute gazte asanbladak eta gazteriaren udal sailak harremani hasiera ematea, gaztetxea beste toki batera eramateko akordio zentzuduna lortu ahal izateko. adi, beraz, gai honi buruzko albistei.



jamiroquai-k abuztuaren 3an joko du gasteizko mendizorrotza futbol zelaian

egungo puntako musika-banda batek gure hiria bisitatuko du datorren abuztuaren 3an. jamiroquai talde ospetsua andre maria zuriaren jaien atarian egongo da, jai giroa berotzen hasteko. mendizorrotza futbol zelaian eskainiko duen kontzertuan 'dynamite' azken diskoa aurkeztuko du.

Javier Otaola, sindikoa

"Argi gera dadila guk epairik"

Gasteizen lehenengoz ezarri den Sindiko izenaz ezagutzen den figura hau erabat berria izan da Euskal Autonomia Erkideagoan eta hau burutzeko Javier Otaola (Bilbo, 1956) izendatu zuten dagoeneko duela hiru urte.

[josune v. de mendizabal]

Bizilagunaren Defendatzailearen kargua bost urtean behin izendatzen da eta Javier orain arte gustura oso dagoen neurrian "datozen bost urteetarako izendatuko banindute lan honetan jarraituko nuke", dio.

Abokatua izan zara, Zuzenbideko irakaslea Ertzaintzaren Arkauteko Akademian eta Letratua Eusko Jaurlaritzan, legetan eskarmentua izatea ezinbesteko ezaugarria izan zen Sindikoaren postua eskuratzeko?

Ez, ez. Araudiak esaten duen bakarra da pertsona hori ezin daitekeela alderdi politikoetan egon eta politikoki independentea izan behar duela. Gero kualifikatua zaren edo ez Udal-bilkurak erabakitzen du, azken finean, hiru bostenen bozka eskuratu beharra dago zure pertsona Sindiko karguan onartua atera dadin. Nire izena proposatu zuten egokia nintzela pentsatu zutelako, agian administrazioan lanean 20 urte daramatzadalako, baina ez abokatu naizelako. Kargu honek bat egin behar du laguntzeko eta entzuteko prest dagoen pertsonarekin, baita administrazioaren ikuspuntutik erantzun eraginkorra eman dezakeenarekin. Hala ere, Sindikoa bizilagunek euren kezak azalarazteko eta arazoak konpontzeko erabil dezaketen bide bat besterik ez da, baina

ez bakarra. 2002 urtean Gasteizko hiriak pauso berri hau eman zuen eta mementoz esperientzia ondo doa.

Hiru urte pasa dira eta figura berria den heinean, jendeak zein puntutara irazi du ezagutzen du Sindikoaren papera?

Nire ustetan ezagutarazten ari da eta askok ere ezagutzen dute, hona arazoak konpontzera datozenak, hain justu ere (barre egiten du). Biztanlearengandik hurbil dagoen zerbitzu bat gara, ez bakarra ordea, lehen esan dudana bezala. Batez bestekoa egun bakoitzeko espediente batekoa da.

Zein da biztanle batek kexa bat egiteko jarraitu behar duen bidea?

Jendea hona dator (Opera eraikinean du sindikoak bulegoa) edota telefonoz egiten du hitzordua (945 162 690) eta elkarrizketatzen gara eurekin. Ostean biztanleak daukan arazoarekin kexa bat aurkezten du. Jakina denez, erantzuna ezin zaie mementoan eman, baina sekulan ez da pasatzen hilabete bat baino gehiago erantzuna jasotzen dutenera arte. Udal zerbitzuarekin harremanetan jartzen gara araudia kontsultatzeko, baita antzeko kasuak bestelako herri eta hiriko zerbitzuekin eman diren jakiteko. Dena den, argi gera dadila guk epairik edota autorik ez dugula egiten, baizik eta legean

- kargu honek bat egin behar du laguntzeko eta entzuteko prest dagoen pertsonarekin

- biztanlearengandik hurbil dagoen zerbitzu bat gara, ez bakarra ordea

- jendeak kalean egoteak sortzen duen zarata areagotuz joan da

oinarrituriko aholkuak ematen ditugula. **Zeintzuk dira hiru urte hauetan gehien areagotu diren kexak?**

Asko izan dira baina deigarrienak edo bitxiak aipatzearen batzuk azalduko ditut. Azkenaldi honetan dozena bat komunitatetatik euren etan ezarri diren hainbat prostituta pisuz eta aktibitate antolatuz kexatu dira. Diotenez gauean jendea portalean sartu eta nahastuta edota alkoholaren eraginez bizilagunen ateetara deitzen dute eta horrek komunitatearen haserrea piztuta du. Hau arazo berria denez, gero eta gehiago zabaltzen ari denez, alegia, dokumentatzen ari gara honen inguruan nolabait erantzun zuzen eta apropos bat eman ahal izateko.

Eta bestelakoak?

Bestelako arazoak, gauean zakarra edota beira jasotzen dituzten kamioiek egiten duten zarata edota gaueko aisialdiak sortzen duen burrunba. Azken kasu honetan tabernen ordutegiak edota hotsgetzeak sorturiko arazoa gutxiagotuz joan den heinean, jendeak kalean egoteak sortzen duen zarata areagotuz joan da. Beste bat aipatzearen, txakurren jabeek euren animalien kakak ez jasotzeak ere haserreak eta kexak eragin ditu.

edota autorik ez dugula egiten"



ZALETASUNIK ZALETASUN

Javier Otaola, bere Sindiko lanaz gain, beste zenbait esparrutan ere mugitzen da, hor nonbait zale eta adituaren artean. Gauza bakar bat baino gehiago egitea gustuko duen pertsona aktibo horietakoa dela onartzen du bilbotarrak.

Hala nola, Gesto por la paz, Ayuda en Acción España edo La Real Sociedad Bascongada de Amigos del País elkarteetako kidea zara, bai eta Gran Logia Simbólica Española masonen elkartean Maisu Handia. Zer esan nahi du horrek?

Ez naiz oso lagunartekoa baina bai elkartekidea (barre egiten du), eta gustatzen zait nire helburu berak duten lagunekin elkartzea. Masoneria elkarteari dagokionez, izen horrekin presidentea izendatzen da, oso izen ponpo-xoa da baina presidentea besterik ez du esan nahi (barre egiten du). Duela 17 urte interesatu nintzela elkarte honetan bai bere filosofiak bai bere historiak erakarrira eta ondoren titulu hori jaso nuen. Logia da ekintza honek esparru lokalean jasotzen duen izena eta Gran Logia, aldiz, logia ezberdinez osatuta dagoen herrialdeko esparrua.

Zure zaletasunen artean irakurzaletasuna ere nagusi-

sitzen da. Eleberri beltza gustuko izateaz gain genero honetako liburuak ere argitaratu izan dituzu.

Umea naizenetik gustuko izan dut polizi eleberria. Neurri horretan irakurle orok idazle izatearekin amets egin du batean edo bestean. Bilbon kokatu dut nire fikzioko lehenbiziko liburua izan den hau, hiri honek duen profila oso egokia iruditzen baitzait eleberri beltzerako, portua, auzoak, kaleak... Horretaz gain, Ertzaintza aukeratu dut protagonista, segurtasun zerbitzu oso zinematografikoa iruditzen zaidalako. Inspektorea emakumea eta lesbiana da, nolabait ikerketei morbo gehiago emateko. Eleberri honen izena 'Brocheta de carne' da, eta ondoren etorriko diren beste biek batera trilogia osatuko du. Haragiaren kontuagatik hasi naiz, eta ondoren munduarekin lotura izango duen 'Un hombre de mundo' deituko da, azkenak aldiz, deabruarekin zerikusia izango du.

Nondik ateratzen duzu denbora hainbeste gauza egiteko?

Denboraren trapuketaria naizela esan daiteke. Edonora noala nire ordenagailua eramaten dut eta hutsarteak erabiltzen ditut horretarako. Esfortzuak kontzentratuz gero denbora atera daiteke.

Varanasiko istorioak

1.- Abiak

[jon arretxe]

Usoa egoten da zain goizero tenpluaren mendebal muturreko eraikineko ate esker-garen gainean, eta Gangak ireki orduko kanpora irteten da, janari bila barruan utzi dituen kumeentzat. Beste joan-etorri asko egiten ditu egunean zehar, guruaren joan-etorriak aprobetxatuz, eta gaua heltzen denean, sa-baiepeko plastikoen artean egin duen abian hartzen du aterpe.

Txakurkumeak ere ibiltzen dira etxe aurreko patio zabalean. Ezer gutxi jaten dute Gangak ematen dizkien hondakinez gain, baina txakurrak ostikoka erabiltzen dituzten herrialde honetan, gaua emateko tokia badute, behintzat, Gangak bazterretan utzita-zapi zaharren artean bilduta, dardaraka urte hasiera fresko honetan, elkarrekin pilaturik epeltasun apur bat bilatu nahian.

Tximinoak ere izaten dira bisitari, tenpluko eremu erraldoia biltzen duen harresi arrailduaren gainetik hurbilduz. Eta katamixar jauzilariak ere bai, gogoko baitute Gangaren bizileku erdi hondatuko hormen zulo ugarie-tatik sartu eta irten ibiltzea. Modu bitxian daude eginda zulo horiek eraikineko lau hormetan, aurpegi itxurakoak osatuz. Hamabi dira guztira, eta Ramaren hamabi jainkozko gaitasunak sinbolizatzen dituzte. Vishnuren haragitzeetako bat izan zen Rama, inoiz egon den gizakirik perfektuena.

Beste eraikin eta zoko-moko asko daude tenplu zaharkituan zehar, baina animaliek mendebal muturreko eraikinarengain ingurua aukeratu dute denbora emateko, tenpluko azken

zaindari Ganga Prasaden babesa sumatuz bezala.

Beharbada ez dute luzerako izango Gangaren laguntasuna, ezta tenpluaren babesa ere, bera handik botatzeko ahaleginetan baitabilta aspaldi honetan kanpoko indarrak. Guru jakintsuak dio arerioek, era askotara ahalegindu ondoren, bera hiltzea beste irtenbiderik ez dutela, baina eutsi egingo diola azken unerara arte, ez diola beldurrik heriotzari.

Gaur, eguneroko joga-eskolaren amaierako elkarrizketan, etsaiei nola edo hala aurre egiteko modurik ez ote duen galdetu diot, eta Gangak gogoko dituen istorio horietariko bat kontatu dit erantzun gisa:

-Txori bikotea abia egiteko ahaleginetan zebilen itsas bazterreko labarretan, baina itsaso gaiztoak behin eta berriz botatzen zizkien olatuak, haien lana hondatuz. Txoriak amorrraturik zeuden, itsaso harroak ez baitzien jaramonik egiten haien erreguei. Orduan, beste irtenbiderik ezean, mendekua asmatu zuten. "Handia delako da hain harroa itsasoa" esan zuten, "baina bilatu dugu modua haren tamaina txikitu eta apalarazteko". Hori esanda, euren mokoak erabiliz, itsasoari ura kendu eta mendiaren atzeko aldera garraiatzen hasi ziren, ekinaren ekinez euren helburua bete-zeko zelakoan.

Begira geratu zait Ganga, irribarrez, biluzik sentiarazten duten begi beltzak iltzatuz nigan:

-Ulertzen duzu zelan sentitzen naizen borroka honetan?•



ERREZETA

Begihandien salteatua kipula eta orburuekin

[gamarrako ostalaritza eskola]

Osagaiak (4 lagun)

| | | | |
|-----------------------------|---------|---|--------------|
| Begihandiak | 2 unit | Oliba olio | 3 dl |
| Perrexil xehatua | | trina eta gatza | |
| Kipula eta txapiro azpirako | | Ozpin oliorako | |
| Kipula | 0,5 kg | Ozpin | baso erdi |
| Txapiro zatiak | 300 gr | Oliba olio | baso t' erdi |
| Oliba olio | | Gatza | |
| Orburuak | | Berakatz aie bat | |
| Orburuak | 16 unit | Txapiro tinta saltsa | |
| | | Aurretik erregositako txapiro zati batzuk | |



Kipula eta txapiro erregosia

Aurretik txikitutako kipula gorritu su motelean oliba olio apur baten laguntzaz, gehitu txapiro zatiak, eta su motelean egin estalita, ondo bigunduta gelditu arte.

Orburuak (ehundura desberdinak)

Ondo garbitu ondoren, bi ezezki, gaineratikoak onti batean oliotan jarri plantxa gainean, emeki-emeki konfitatu daitezen, 10-15 minutuz. Beste biak, garbitu ondoren, gordinean, orri finetan moztu, ondoren irinetan pasatu eta frijitu. Paper xurgatzaileetan utzi lehortzen. Konfitatutako lau orburu atera, eta lautan zatitu. Gaineratikoak xukatu ondoren, xehatu konfitatzeko erabiltako olio apur bat pixkanaka gehituz, krematxo baten sendotasuna hartu arte. Gatzez probatu.

Begihandiak

Garbitu ondoren laukitu aizto batez. Hutsean ontziratu, ondo luzatuta, eta banaka. Egosi ur irakinetan (100°C.), bi orduz. Denbora pasata, atera eta berehala hoztu. Egosteko poltsan bertan gorde erabili arte.

Ozpin olio

Jarri ozpina eta berakatz birrintzeko tresnan, dena xehe-xehe utzi arte. Gehitu olio pixkanaka eta gatz apur bat ere. Txapiro tintaz egindako saltsa gehituko diogu, eta ondoren txapiro zatiak.

Plateraren amaiera

Begihandiak plantxan markatuko ditugu, eta erditik luzeran zatituko ditugu bitan. Plateraren erdialdean kipula eta txapiro erregosia jarri, gainean begihandia bere hankekin, eta alboan 2 zati orburu konfitatu, eta bere krema lerro batez apaindu. Begihandiak ozpin olioaz zipiritzinduz, eta platera ere berarekin apaindu. Amaitzeko, orburu frijituarekin apaindu, eta perrexil apur batez hautsezatu.

[alfredo ibarra]



Mugak?

[erlantz urtasun]



Mugak? Zer muga? Txomin Artola abeslariak zioenez, gure aberri mugak euskararenak ziren. Ongi dakizunez, irakurle, zutabe xume hauen bitartez aspaldiko Arabarat hurbiltzen saiatzen ari gara. Antzinateko pasadizuak, mende ilunetako historia ezagut dezagun ahaleginttoa, alegia. Batzuetan, baina, zera ahantzi egiten zaigu, asmo txarrik gabe, erran nahi baita lehenagoko mundua egungo begiradaren iragazkiaz ulertu nahi izaita. Ustekabean ere, bat-batean, zorionez berehala, geure akatsaz ohartu eta arbasoen ikuspegiak janztea hobe izanen den gogoeta egiten ohi dugu.

Hori medio, bai, mugak. Aurrekoan, duela hilabete guti, ez pentsa, toki zoragarri batean pausatu nintzen, non eta garai huntan "arabar errioxa" deitzen ohi dugun alderdian. Hango ikastoletan aritu, Bastida, Lapuebla Labarka, Oion, barkatu izen guziak ez emaitagatik, zerrenda luzea izanki nik baino hagitzez hobe jakinen baituzue, prefosta. Afera da une batez "altura" hartzea erabaki nuela, pixkat igo, muinoak, mendi maldetaik goiti eta, hor beiti, maketa erraldoia bailitzan, hondoan geratuiko harrizko etxaldez gozatu nuen.

Mugak? Non? Duela milurte bat, bi, jende bera zen, berezko eremu aberats, emankor, eder. Logroño dela, Biana dela, ez ote da Biana ekialdeen geratzen den arabar errioxar hiria, bon, uria? Ez arabar errioxar herri guziak Bianatik mendealderantz luzatuiko mihi goxoa? Zeintzuk Biasteri, Guardiako eliz zutabeetan ageri diren armarririk? Nafar bandera ez ala?

Berantago andereñoen istripuaren berri ukan eta, inoiz baino gehiago hurbiltasuna eta, nola erran, bihotz lotura edo senditu nuen hemen barranean, ezarrian igotzen zuen indar ikaragarria. Nondik ziren etorriak emazteki horiek gure hizkuntzaren berreskuratzeko? Zein mugeta? Fitok errana, pertsona bakan batzuk, jende gehiegi. Edota Silviok, "un pueblo destinado al inventario de la omisión". Zer diozue, Jabi, Endika, Kike, Nagore, Esti...?

Bada, egun hartan, arratsaldean Bianako ikastolan nintzen. Dena dugu Euskalerrria, zer erranik ez lehenagoko, duela bi mila edota mila urteko aitaxi-amatxiendako. Orduan eta orain, elkartasuna, elkarlana, auzolana giltza. Mugak? Gure buruan ez bertzetik. Ohiturak mugakide? Usadioak, txarrak direnean, hausti behar.

Lagunmin batek eni: "Erlantz, que nos han engañau". Beharbada ene baitan muga eta frontera bereizten dakidalakotz. Zein lokarri bertako jentil, kristau, judu eta musulmanen artean? Hurrengo zutabeen Zoraida neskatalak Zaldiarandik azalduko diguna...•

[? hemendik aurrera, txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera izango duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

EKAINAK 30, osteguna

Ramon Saizarbitoria, Gorde nazazu lurpean, Erein 2000

Hikaatenoa (Pintore kalea, 13), 20:00etan

Dinamizatzailea: Iban Zaldia idazlea



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

GEUREKIN MENDIRA

EKAINAREN 26an

JOAR (1416 m)

(*goizekoa)

Arduraduna: Xabi-629487540

Irteera: goizeko 9:00etan Lovainan



KANGEUROAK

✓ Zerranda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

✓ Aldi berean, zerrandan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.

AUKERAK

• Ordutegi guztiak

Leire: 656726701

• Arratsalde / Gauez

Nerea. 658733934

• Asteburuak

Nagore. 945281124

GEUREKIN

MENDIRA

GAZTE

TALDEAREN IX.

IRTEERA

EKAINAREN 26an

ANBOTO

Irteera: goizeko 7:45ean Autobus-geltokian. Busez

Informazioa: 945222153 (GEU elkartea - Josune)

KULTUR ERROTA

EKAINAK 21

KIKE AMONARRIZ & ASISKO URMENETA & ANTON OLARIAGA

HITZALDI UMORETSUA: EUSKARA LARDASKATZEKO MANERAK

20:30ean, Parral tabernan

Euskara altxorra omen dugu, biraorikan ez duen hizkuntza garbia, eta bla bla bla...

Guk berriz mintzajea lardaskatu, narrastu, botigatu, kakanahasi egin nahi dugu; bai eta lortu ere.

Diziplina aunitzetatik bidaiatuko gara adierazkortasunean barrena, irudigintza eta irudimena endredatuz.

Osagai zahar eta berriz prestatu dugu saltsa hau, eta bertako ekarpenez errezeta aberastuko gero.

Umora marka dauka mintzaldiak, eta entzuleak ere partehartzaile egiten ditugu.

Aurreneko hitzaldian libertitu ginen Euskaraz. Oraingoan trufatu eginen gara. Erdu?

IRAGARKITXOAK

Neska euskaldun bat behar dugu, datorren irailetik aurrera haur bat zaintzeko goizetan, eguerdira bitarte. Interesatuak 945.13.26.98 edota 658.71.21.06 telefonoetara dei dezatela.



www.geugasteiz.com | geu@geugasteiz.com | geugaste@grn.es

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | e-mail: geugaste@grn.es | www.geualdizkaria.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkari batzordea: josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez | kazetariak: josune velez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri | maketa: dalvez-komunikazioa / patirke sanz Laguardia | umorea: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: angel olalde, jon arretxe, txabi arnal, idoia torregarai, aritz urra, andoni perez cuadrado, erlantz urtasun, alfredo ibarra eta gamarrako ostalaritza eskola | publizitatea eta banaketa: edurne begiristain | sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate eta maite lekue | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | Ig: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua euskaraz bizi

PITILIN GORRI

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./faxo: 945 14 02 17 • Mobilo: 639 81 51 30

MIKO

Izozkiak

bar . restaurante .
albeniz

Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnook: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

IZARRA TABERNA - JATETXEA

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 973

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

LIZARRALDE SOINYA 945 226 977

TXALAPARTA, S.L. GASTEIZ

SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
EREMU HANDIEN SOINUZTAPENA

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

EL BAR Kutxi

eguneko menua

DIBUtec

Paper Berriak
Arte Ederretarako Materialak
Jink. lot. original eta birziklatuak
Bulego Materialak
Enkoadernazioak
Plasifikazioak
Kamiseten Estampaketak
Kopiak

azkarprint
Inprimaria / Inprimategia
Ekozein inprimaketak mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOIA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

EGUR

Zurezko Teilatuak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Goian Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@euskalnet.net

Xabier taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

EA eusko alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org

GA gazte abertzaleak
www.gazteabertzaleak.com

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracleo Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02 01006

Askatasuna kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91 01004

Sartu

Zure arropa eta oinetakoak

www.sartudenda.com

Kubxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

IZARRA TABERNA

Equilibratu, acetelohemetik osatutako

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33

TXUKUNA

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Udara (ere) ikasteko izan daiteke

Ez zaudela ados izenburuarekin?

Duda horiek baztertzen saiatuko gara artikulu honekin.

Ausartzen zara? Atea irekita daukazu!

Uztaila. Biarritz, Eibar eta Iruñea. Punta-puntako eta gaurkotasun handiko ikastaroak. Euskara. Klaseetatik kanpoko ekintzak. Giro paregabea.



idoia torregarai martija udako euskal unibertsitateko ikastaroetako komunikazio-arduraduna dugu

[idoia torregarai martija]^{EIBAR}

Hauek dira UEUren (Udako Euskal Unibertsitatea) udako ikastaroen sekretuak. Sinpleak, baina ondo sukaldatu behar direnak goxo-goxoak izateko.

UEU ez da berria horrelako lanetan. Duela 33 urtez geroztik antolatzen ditu udako ikastaroak, eta urtez urte arrakastatsuak izaten dira. Zer dela eta? Zerk bultzatzen du jendea udan, bere opor garaian ikastera? Irati Iciar, UEUko Udako ikastaroen arduradunaren esanetan lau dira arrazoi nagusiak: "alde batetik, unibertsitateko ikasleentzat kredituak lortzeko bide bat da, eta ondorioz, beraien ikasketak aurrera ateratzeko osagarriak dira udako ikastaro hauek. Bigarren arrazoia udako ikastaro hauetan lantzen diren gaiak erakargarriak dira, eta jendeak gustatzen zaion gauzetan inbertitzea ez da zaila egiten. Hirugarren faktore bat hiz-

kuntza aipatuko nuke: UEUren udako ikastaroak dira bakarrak guztiz euskaraz egiten direnak, eta askotan jendearentzat aste bat euskaraz ikasi eta biziitzea ahalbidetzen dio. Eta azkenik, UEUn ikasteaz gainera, ondo pasatzen da. UEUK klaseetatik kanpoko saioak antolatzen ditu (antzerkia, kontzertuak, irteerak, etab.) eta horrek topagune ezin hobe eskaintzen du jende berria ezagutu eta primeran pasatzeko. Ezagutza eta oporrak, biak topatzen dira UEUn".

UEUK aurten 35 ikastaro antolatu ditu; 12 Biarritzen, 5 Eibarren eta 18 Iruñean. Guztiak ere originalak eta punta-puntako gaiak jorratzen dituztenak. Gaiekin batera, irakasle handiak ere izango dira UEUko udako ikastaroetan, hala nola: Agustin Unzurrunzaga SOS Arrazakeriako kidea; Aingeru Epaltza, Pako Aristi, Harkaitz Cano, Itxaro Borda, Hasier Etxeberria eta Jon Alonso idazleak; Agus Barandiaran, Urgabe musika-taldeko kidea; Juanma Berasategi, zine zuzendaria eta abar.

UEUK "beste zerbait" eskaintzen duela esaten dute bertako ordezkariak. Izan ere, ikastaroek gain, behin klaseak amaituta beste hainbat ekitaldi antolatzen baitituzte: saio osagarriak dira, eta berauek dira, klaseko martxarekin batera ikastaro hauek giro berezi bat sortzearen "errudunetako" batzuk; eta guk dakigunez, beste inolako udako ikastaroetan ez dira antolatzen. Saio hauek izaera eta mota desberdinetakoak dira: berdintu topatu dezakezu Patxi Perez-en dantza ikastaro bat, Biarritzeko talasoterapiarako sarrera, Ramon Agirrerren azken antzerkia edota MAK taldearen kontzertua. Saio hauetak gain, gainera, norberak ere ez du arazorik izango "girotxo" topatzeko Biarritzeko hondartzan edota Iruñeko parte zaharrea. Eta gero UEUn



[arg.: ueu]

asko ligatzen den kondaira dago, baina hori beste baterako utziko dugu...

Baina zenbat balio du ikastaro hauetara etortzeak? Ba ideia argi bat izateko, astebeteko ikastaroak 130 euro balio du, baina ikasle, UEUko bazkidea edota langabetua izanez gero, kopuru hori 98 eurotara jaitsi daiteke (edozein herri-tako festetako asteburuetan erraz gastatu daitekeen kopuru). Ezin da ere ahaztu zenbait Udalek ere dirulaguntzak ematen dituztela UEUra etortzeko eta beraz, norberaren udalerriko Euskara edo Kultura zerbitzuan galdetzea komeni dela. UEUK, gainera ostatuak ere koordinatzen ditu Biarritz eta Iruñean; beraz, bertan igaro dezakezu barnetegi moduan aste osoa•

Eta behin hau irakurrita ikastaro hauetan izena emateko irrika pizten bazaizu, zer egin behar duzu? Ba errazena UEUren web-gunean sartu eta bertatik informazio eskuratu eta matrikulatzea da: www.ueu.org. <<http://www.ueu.org/ueu/index>>. Bestela, 943821426 telefonora ere deitu dezakezu. Baina azkar ibili, matrikulazio-epa hilaren 19an amaitzen da eta.

Zeri ari zara itxaroten? Atea irekita daukazu!

IKASTAROEN ZERRENDA

Biarritz, uztailaren 4tik 8ra

- 1- Espresio dantza: gorputza askatu eta mugimenduaren inertzia sentitu (Antzerkilaritza, Musika)
- 2- Kontatzezik mintzatzea: ipuina, hitz egiteko baliabidea (Antzerkilaritza)
- 3- Europa bakar bat? Zer, nola, norantza? (GAIN)
- 4- Giza hizkuntzaren natura (Hizkuntzalaritza)
- 5- Euskal gatazka euskal literaturan (Literatura)
- 6- Informazio Geografikorako Sistemak (GISak): lehen hurbilketa eta hainbat adibide (Natur zientziak)
- 7- Gaixoarekin harremanetan tailerra (Osasuna)
- 8- TEACCH metodologia. Autismoaren trataera ikuspegi inklusibotik (Pedagogia)
- 9- Berdinen arteko bortxakeria eskoletan: bullying-a (Psikologia)
- 10- Errepresio politikoak eragindako ondorio psikologikoak (Psikologia)
- 11- Sorginkeraren antidotoa (Sexologia)
- 12- Betiko botika: Euskal Herriko sendabelarrak (Talaatik)

Eibar, uztailaren 11tik 15era

- 1- Ekonomiaren demokratizazioa: autogestioa aztergai (Ekonomia)
- 2- Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia (GAINDEGIA)
- 3- Zientzia eta teknikarako euskara (Hizkuntzalaritza)
- 4- Euskal musika ikastaroa (Musika, Talaatik)
- 5- Emakumeentzako striptease terapeutikoa (Psikologia, Talaatik)

Iruñea, uztailaren 18tik 22ra

- 1- Transgeneritatea eta transexualitatea: feminismitik harago? (Antropologia)
- 2- Gizadia Gaian: Industria Iraultzatik arketekteturaz bioekohirirantz (Arkitektura)
- 3- Euskal Herriko zinea: artea eta historia (Artea, Historia)
- 4- Ahozkotasanaren bidean (Bertsolaritza)
- 5- Boterearen egiturak gaur egungo Euskal Herrian (Eusko kultur gaiak)
- 6- Aristotelesen filosofia (Filosofia)
- 7- Blog-ak: oinarriak, esperientziak eta praktika (Informatika, Kazetaritza)
- 8- Segurtasun informatikoaren beharraz jabetuz (Informatika)
- 9- Herri-kazetaritza praktikoa (Kazetaritza)
- 10- Kimika eta ingurumena (Kimika)
- 11- Ba al du nekazaritzak dagokion lekua goi-mailako ikastetean? (Natur zientziak)
- 12- Arte-prozesuen erabilera tratamendu terapeutikoetan (Psikologia)
- 13- Grafologia: zelako idazkera halako izaera (Psikologia)
- 14- Non nago ni? Zenbait teknikaren bidez norberaren ezagutza (Psikologia)
- 15- Emakumeen gorputza eta erotika (Sexologia)
- 16- Globalizazioa, migrazioa eta hizkuntzak (Soziolinguistika)
- 17- Herriaren partehartze politikorako mekanismoak: Erreferendumak, herri-kontsultak. Eguneroko partehartze esperientziak (Soziologia)
- 18- Estresari aurre egiten (Yoga)

Euskal kulturaren erreminta berriak:

www.mediaberri.com

euskara hutsezko komunikabide elektronikoa



[aritz. urra] IRUÑA

Web orrialde baten kontakizuna da hau. 2002 urtean sortu zen mediaberri izenarekin, lehendabiziko informazio alternatiboko web euskalduna. Leioako Kazetaritzako fakultateko ikasle batzuek abiarazi zuten proiektua. Helburua, nazioarteko gertaerak ikuspegi kritiko batetik aztertzea zen, interes ekonomiko eta politikoetatik at. Kazeta-ikuspegi berezia da, eta Internetek aukera hori eskaintzen zigun. Proiektu apala zen, baina pixkanaka-pixkanaka bisita kopurua igotzen hasi zen, Euskal Herrian eta atlantikoaz bestaldean, euskal diasporako paisanoren batek ere irakurriko zuen. Proiektu horrek egun indarrean darrai.

Proiektu hura piztu zen benetako komunikabide bat sortzeko guren gogoia zela eta, eta gure ikuspegiak plazaratu nahi genituelako. Prozedura ere oso erraza da: zerbitzaile informatiko batekin domeinua kontratatu, eta urteroko kuotaren truke, posible da web bat abiaraztea. Horretaz gain, legezarekin arazo asko ez edukitzeko, beste herrialde batean kokatutako zerbitzailea kontrata daiteke. Mexiko edo Marokoko zerbitzaileak, kasu. Neurri horri esker, Espainako gobernuak duen legedi gogorra ekidin daiteke.



Mediaberri sortu genuenean benetako komunikabide bat sortzeko nahia genuen. Horretarako, asko landu ez den euskarri bat erabili nahi genuela argi genuen; sarea. Horrela, jakin gabe MediaBerri euskara hutsezko komunikabide elektronikoa bakarria bilakatu zen. Ez zen euskarazko komunikabide bakarria, ezta gutxiago ere, baina besteak ez bezala, Interneten argitaratzen zen bakarrik, ez paperean. Gerora, ezaugarri bereko komunikabideak sortu ziren (ad.: gaztesarea).

Bertan, Euskal Herriari eta mundu osori buruzko gertakari nagusien kronika egiten genuen. Guztiek tonu kritiko eta pertsonalizatua zeukaten, baina gertaeraren muina jasotzen zuten. Liburu eta diskoei buruzko iruzkinak ere ageri ziren. Artikuluek betiere tonu kritikoak zuten, ikuspegi desberdinak plazaratuz. Komunikabide nagusietako albisteak plazaratzen genituen, segituan dudak jartzeko

edota bestelako ikuspegiak plazaratzeko. Horretarako, sarearen bidez gertakari ugari buruzko informazioa jasotzen genuen. Kanalak oso anitzak ziren: hedabide instituzionalak eta enpresa handiak (El Mundo, El País), eta baita komunikabide txikiagoak ere (Gara, Berria). Nahiz eta "gertaeraren muina" egon ez, informazioa kontrastatzen genuen, beraz, Informazio batzuk, tituluetan agertzen ziren, eta bertan klikatuz gero, zuzenean orrialde horiekin lotzen genituen.

Esparru lokal batetik esparru global batera zabaltzeko gure mezua. Horrela, irizpide kritikoa sortu, eta propaganda instituzionalari kontrajarritako albisteak zabaltzeko genituen. Sarearen bidez, komunikabide txiki bat masa-hedabide bihurtu zen, sarearen ezaugarriek esker. Euskara hutsez informazioa mundu osora hedatzeko aukera lortu genuen.

Web orri baten eragina neurtzea zaila da. Bisita kopurua jakin daiteke, baina ez erabiltzaileei egindako zirrara, pertsona batek artikulu bat irakurtzean sentitu duena. Hala ere, argi dago euskarazko edukiek erakarpen indartsua eragiten dutela erabiltzaileengan. Merkatua bada-ego. Egia da gazteak sarearen zati handi bat hartzen duela, Latinoamerikako hiztunen eraginez, batik bat, baina euskara bere tokia topatzen ari da. Mundura gure begiekin begira dezakegu. Gure kulturak, gure nahiak, edozein direlarik ere, sarearen bidez plazaratu ahal ditugu. Egin behar dugun bakarria erreminta hori lantzea da, eta hori egiteko baliabideak martxan jarri. Mundu globalizatu honetan, norberak bere kasa hitz egin behar du, besteak entzun dezaten. Bestela, esamesek benetan esandakoa estaliko dute... •

AAAHI, BADATOR
 UDA: KALERA
 IRTEN...JAIK
 ...JENDEAREKIN
 EGOTEA...KILOAK
 GALTZEKO
 BORROKA
 ... EGOKIA
 IRUDITZEN ZAIT
 IAZKO MODA
 ETATENDENTZIAK
 BERRIKUSTEA,
 GIZARTEA
 PRESTATUTA
 EGON DADIN.
 ZUEN ITXURA
 AUKERATZEKO.
 HONA
 HEMEN
 ADIBIDE
 BATZUK:



HARA!
 "CASUAL BUT
 SMART" ADIBIDE
 EDERRA...

TATXAAN!

GRFS!!!

GOGORATU:
 ZEURE ESTILOA
 AUKERATZEKOTAN
 ONDORIOAK ZERIKUSI
 HANDIA IZAN
 BEHAR DUELA



* Galtzontziloak ez dira markakoak



Volgako batelariak, literatur inoizkari kosakoa

Volgako Batelariak izenpean literaturaz jarduten duen aldizkari digital berria jaio da sarean

Aldizkari elektroniko berri hau blog formatupean eskuragarri dugu eta genero ezberdinetan literaturaz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen digute bost idazlek, **Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Ibon Egaña, Angel Erro, Juanjo Olasagarre eta Iban Zalduak**, hain zuzen.

• "dibertitu nahi dugu literaturaz jardunez"

• "gure gus-tuak eta gure gaitziritziak plazaratzea otu zaigu, ahalik eta zintzotasun handienaz"

• "hausnarke-tarako eta kri-tikarako espazio bat. Eus-kal literatura eta munduko literaturez hitz egiteko gune bat"

• irakurleek parte har dezakete Volgako Batelarien blogean testuak sartuz, aukeratutako bitartekoari zuku guzia ateraz

[maite lekue]

Literaturaren inguruan jarduteko gogoia konpartitu nahi izan dute Gasteiz hiria komunean duten arestian aipatu bost sortzaileek. Bertatik, literaturaren barnean zer esan nahi batez mugiturik eta gai batzuen inguruan dituzten bat etortzeak batuz, www.eibar.org/blogak/volga webgunearen baitan literaturan murgildu nahi duenarentzat inoizkari baten aukera sortu dute. "Ironiaren inguruan adostasuna ere badugu", dio Iban Zalduak eta "aldizkariaren asmoa serioa da" kontatzen du Rikardo Arregik, gauza serioez hitz egiten dela, baina aldi berean dibertitzeko eta jolasteko asmoa ere badela adieraziz.

Sareak eskainitako erosotasunari mamia atera nahi izan izan diote. "Bidea merkeagoa da, lan gutxiago eskatzen du, espazio mugak gainditzen ditu eta gero eta jende gehiagok eskura du". Erraztasunagatik ere hautatua, bloga web orri bat baino erosoagoa omen delarik erabiltzeko eta baita maketatzeko ere. Diseinatutako formatu batean testua egokitu behar da eta luzera librea jasotzearen aukera onartzen du. "Blogaren formatuak gauzak metatzeko aukera ematen du,

ez dago alerik, ez dira galtzen, egindako gauza denak izan ahal dira mementoan". Loturak egitearena ere probestu nahi izan dute, hipertestua erabiltzearena hain zuzen; hau da, irakurleari iturri ezberdinak eskaintzeko aukera bideratzea.

Kritikaria, poeta, nobelagilea eta ipuinlariak batzen dituen taldeak genero desberdinak lantzen ditu, estetikoki aldeak mantenduz. Heterogeneoa den taldearen emaitza, hainbat ataletako literatur gunea, Volgako Batelariak hain zuzen.

Galdetuko diguzue:

"Zer da Volgako Batelariak?"

Eta guk erantzungo dizuegu,

"Volgako Batelariak oihu etsitu bat dela,

Askatasunaren eta Iraultzaren aldeko aldarria.

Eta Chicagoko Maiatzaren leheneko hura ekarriko

dizuegu gogora"

Ibon Egañak Gasteizen apirilaren 6an egindako aurkezpeneko prestatutako testuaren hasieratik abiatuz,



iban zaldua eta rikardo arregi san frantzisko kantoian

[arg.: edorta sanz]

beren onetik zerk ateratzen dituen jakin nahi izan dugu. "Euskal Literaturan asko dira kritikatu beharrekoak"; "gauza batzuk esaten dira egia izango balira bezala eta oso eztabaidagarriak dira esandakoak"; "Ez dakit noraino egon den esparru bat ideia horiek eztabaidatu eta plazaratzeko", diosku Rikardok. "Hizkuntzaren aldeko borroka oso sakralizatu egon dela eta dagoela", dio Ibanek eta literatura bigunak ateratzen duela bere onetik, gero eta ugariagoa dena gaur egun.

Literaturari beste leku bat ireki dio Volgako Batelariak guneak. Euskal literaturaren inguruan, aldizkari eta irratari bakan batzuk kenduta gauza gehiegirik ez dagoela, eta irakurri eta ikusi dituzten gauza askorengatik sortutako egitasmoa dela diote; kritikaren izaera noraezean, idazten dibertitzeko eta jolasteko asmoa dutela. Literaturaren maitaleak sarean murgiltzeko aitzakia bikaina•

Inoizkariak dituen atalak

Elkarrizketak atalean, literaturarekin edo artearekin zerikusia duen jendearekin egindako solasaldiak eskainiko dira egindako hizkuntzan.

Inoiz idatziko ez nukeena: sail honetan edozein testu onartezin onartuko da. Egileak askatasun osoa du, beraz, bera ez den idazlea izateko, gorroto duen estiloa argi uzteko.


Kritikak sailean, liburuen kritikak argitaratuko dira. Azken aldiko nobedadeen eta liburu zaharren artean hainbat aukeratu eta zoriz banatuko dira.

Irakurri gabeko liburuen kritikak: "egunkarietako eta unibertsitateko kritikariak halakoak egiten badituzte, zergatik ez Volgako Batelariak? Guk behintzat abisatzen dugu eta, gainera, ez dugu sosik kobratuko".

Testuak atalean, literaturaren inguruko gogoetak, burutazioak, itzulpenak eta abar eskainiko dira. Argazkiak, koadroak eta irudiak ere ikusgai dira gunean.

Volgako Batelarien Ukaseak: erredakzio batzordearen ohar kolektibo eta jakingarriak plazaratuko dira atal honetan.

VTV: Gasteiz lurralde ikuskorra 'II.a: ez duzu begiratuko' erakusketa



“Egun gura, baina ezin. Begiradak, sentsazioak, pentsamenduak aske utzi. Baina besteen begiek, hitzek, aurreiritziek arnasa lapurtzen digute, egin nahi duguna urratuz. Finean, lotsa, debekua, autozentsura dira gure trabak”.

[saioa fdz de arangiz]

Honetaz guztiaz hausnarketa egitera gonbidatzen gaituzte Arte eta Lanbide Eskolako ikasleek, argazkiak eta bideoak bi-tartekariak izaki, ekainaren 10etik uztailaren 3ra bitartean, Montehermoso jauregi-ko M.M. Gomez aretoan ikusgai izango den erakusketan.

Egunotan izaten ari den 'VTV: Gasteiz lurralde ikuskorra' programaren baitan, Arte eta Lanbide Eskolako Ikusentzunezko eta Argazkilaritzako ikasleek antolatuta duten erakusketa aurki dezakegu. 'II.a: Ez duzu begiratuko' izenburupean, Hamar Aginduei egiten diete erreferentzia, egungo gizarteak gura duena begiratzeko, pentsatzeko eta sentitzeko duen galera agerian utzi nahian. Azken finean, ezarrita dauden usteetara bideratuak gaude, itsu-itsuan eta egoera horren jabe, gizartea bera dela adierazi nahi dute. Argazkiak eta bideo-instalazioak izan-

go dira igorleak, baina ez da erraz ikusiko. Hau da, erakusketa ikusteko zaila eta deserosoa izateko antolatuta da, izan ere, obra gehienak metalezko kabina beltzetan sartuko dira, ikusleak obrak ikusteko trabak izan ditzan. Guztira, lotsan, debekuan, pentsaraziko dizkiguten 6 kabina izango dira, non irudia eta soinuen bidez egungo gizartearen kate moralak estalgabetuko dituen bisitariak. Horrela, erakusketara sartu bezain laster, panpin baten aurpegi kezkarria osatzen duten 4 argazki handirekin egingo dugu topo. Horrekin batera, bideo zaintza zer den ere sentitu ahal izango dugu, ustez ikusi eta egin ezin dena begizatzen dugunean. Bestetik, XXI. mendeko naziak gu geu eta gure sistema kapitalista dela aldarrikatzen duen bideo-instalazioa ikusteko aukera izango dugu, baita sortzaileek hipokrisiaz duten ikuspegi pertsonala ere. Horretarako, ongi eta gaizki ikusiak dauden ekintzak kontrajarriko dituzte. Honi lotuta,


inaugurazioaren egunean, hilaren 10ean, performance saioa eskainiko da erakusketa aretoan bertan.

Gizartearen debekua eta hipokrisia dela eta, emakumeak pairatzen duen egoeraren inguruko hausnarketa ere ez da faltako erakusketan. Estetika, baina baita gizarteak, erlijioak eta finean kulturak emakumearen askatasunarengan duen eragina ere aztergai izango da irudi eta soinuen bidez.

Irudi estatikoek, hots, argazkiek ere zer esanik izango dute. Haurtzaroan harriesen gairi kuriositatez begiratzeko lotsa eza, bainuontzian sartuta klaustrofobia sentitzen duen pertsonak kanpora begiratzeko duen beldurraren aurrean ikusiko dugu, baita egungo gizartean besteen gainera nabarmentzeko beldurra agerian uzten duen irudia ere.

Honakoa izango da, beraz, parada ezin hobe egungo gizartearen ustezko askatasunen inguruan gogoeta egiteko•

[andoni pz cuadrado]



Garcia de Andoin, Romerategi, Grajales, Kortazar, Arbulo, Viñegra, Biteri, Arkaya, Beitia eta beste hainbat abizenek Euskal Herriaren ibilian urrats sendoa utzi dute.

Gasteizko errealitate ezezagunak

GEU aldizkariak argitalpen honetan parte hartzeko gonbita egin didalako harrিতuta baina esker onez, has nadin ilusio osoz eta nire izaera honek bul-tzatuta nire ibilbidearen berri ematen, nire bizitzaren hasierako uneetatik eta ondorengo garaietatik hasita, nire bizi-penpen bidez -subjektiboak, nola ez- gure Gasteiz maitearen errealitatea erakus-teko gogoz, baina gehiegikeria chauvi-nistetan sartu gabe.

“Perez Cuadrato’tar Andoni eta Perez Cuadrado’tar Joseba”, horrelaxe ager-tzen ginen nire anaia (goian bego) eta ni garai hartako Escuela Vasca (sic) ahaztezinaren zerrenda eta fitxetan; es-kola hura 1934an jarri zuen abian EAJk, eta bertan Pilar Landaburu Fernandez de Betoñok, Eusko Jaurlaritzako le-hendakariorde izan zen Francisco Ja-vier Landabururen arrebak, bere mai-tasun eta ilusio osoa jarri zuen guban, handik pertsona jatorren belaunaldi bat atera nahian; eta harrokeria badirudi ere, lortu zuela fede eman dezaket.

50-60ren bat ikasle esertzen ginen Za-patari kaleko lokaletako ikasmahaietan -laugarren etxadian-, oinarrizko ikas-ketak erlijio katolikoan inspiratutako printzipioekin osatuz, garai hartako abertzaleen bereizgarri izan zen joera-ren arabera. Inork ez zezakeen zalan-tzan jarri euskaldun/fededun binomioa, eta 1936ko gerra ezmorealean euskal na-zionalismoaren ibilbideari prestigioa eman zion oinarria ere horixe izan zen. Egunean zehar barneratutako printzipio horiek arratsalde-gauean zabaltzen ge-nituen, euskara, dantza, musika, an-tzerkia, kultura, kirolak eta horrelako jakintzagaietan, eta jakintzagai horiek emateaz arduratzen zen abertzaleen sal-

doa ere ez zen nolana hikoia: Presa, Es-tibalez, Alava, Uralde, Ormaetxea, Agi-rre eta abar. Satrapa orok ohi duen kru-delkeriaz gure herriarengan isuri zen infernu hari abertzaletasunaren balio-etatik aurre egiteko behar-beharrezko-ak ziren balioak errotu zituzten gure espirituan.

Garcia de Andoin, Romerategi, Gra-jales, Kortazar, Arbulo, Viñegra, Bite-ri, Arkaya, Beitia eta beste hainbat abi-zenek Euskal Herriaren ibilian urrats sendoa utzi dute. Horiek eta beste askok, helburu baten inguruan bat egin-da, garrantzi handiko jarduerak egin genituen pixkana. Gure hiriak eskain-tzen zituen ekitaldi eta jarduera sozia-letan parte hartu genuen, eta kopuruz txiki baginen ere, argi eta garbi na-barmendu zen gure parte hartze hori, gure errealitatea aise gainditzen zuten emaitzak lortu baitziren.

Zeregin izugarri horren garrantzia are handiagoa izan zen, ekimen handi hori gauzatu zen garaia zeinen laburra izan zen kontuan hartzen badugu. Han-dik bi urtera hura guztia ezerezean utzi zuen Francoren apetak. Duela gutxi, Goiz Argiko Elustondorekin topo egin nuen batean, horren ezezagunak ziren Gasteizko errealitate horiek zirela eta, harrিতuta ageri zen; izan ere, gure his-toria txikia deskribatzen duten betiko gasteiztarrek nagusi den boterearen al-derdi abegikorrenetik egiten dute, bes-telako guztia saihesteko alferrikako aha-leginean eta, beraz, gure errealitatea erabat desitxuratuta erakutsiz. Gustu-ra geldituko nintzateke historiari nik egindako ekarpenak isildutako hainbat gertakari konpentsatuko balitu, justia egiteagatik baino ez bada ere•

La Pera Limonera, fruitu exotikoak dastatu eta oparitzeko aukera

2004ko apirilaren 4an zabaldu zituen bere atea Hedegile kalean kokatutako denda bitxi honek, La Pera Limonera izenaz ezaguna duguna. Bertan munduko txoko ezberdinetatik ekarritako fruituekin opari saskiak atontzen dituzte, bakoitzaren gustuen arabeko otar berezitua eskainiz.



marisa alvaro, arduradunetako bat

[arg.: edorta sanz]

Bertan aurki daitezkeen fruitu tropikal batzuk

- Ekuadorretik, Karanbola. Gaixotasun kardiobaskularren prebentzioan egokia.
- Pasioaren Fruitua, Brasiletik eratorria. Haurdun diren emakumeentzat aproposa.
- Granadila, Kolonbiatik. Ultzera denean, orbaintzaile eta hanturaren aurka funtzionatzen du.
- Kolonbiatik, Ranbutan. Baina Indian, Tailandian, Indonesian... ere landatzen da. Ezaugarri libagarriak ditu.
- Kiwano, Zelanda Berritik, Brasil eta Israeletik. Diabetikoentzat eta bihotz gaixotasunen bat duenarentzat oso egokia da.

[maite lekue]

Kolonia, Vietnam, Txina, Brasil edo Boli Kostara joaterik ez dutenentzat bertako zaporeez gozatzeko aukera izan bada gaur egun Gasteizen. Fruitu exotikoen zapore berridunen mundura hurreratzeko jolas ezin hobea; eskuzabalenentzat aldiz, opari bikaina prestatzeko parada.

Nola otu zitzaizuen fruta opari gisa eskaintzearen ideia?

Bi laguneren artean sortutako proiektua dugu denda hau, Atsegine Arranzek eta nik (Marisa Alvaro) martxan jarri bainenuen. Nire alaba munduratzarekin batera, fruta exotikoez atondutako saski bat

oparitu zidaten. Hortik abiatuta, fruitak oinarri hartuta negozio ezberdin bat sortzearen ideia otu zitzaigun, fruituak opari bezala eskaintzearena alegia.

Zer aurki daiteke La Pera Limoneran?

Personalizatutako fruitu otarrak eskaintzen ditugu opari gisa bidaltzeko. Fruitu tropikal eta freskoekin lan egiten dugu batik bat baina ardoa, cava, bonboiak eta pelutxeak ere salgai dira norberaren gustuen arabeko oparia prestatzeko. Fruituak ezagutu eta nola kontsumitu behar diren jakiteko argibide orri bat ere eskaintzen dugu, kontsumitzaileari ahora eramango duenari eta elikagaiaren jatorriari buruzko informazioa emanez.

Nori egin al zaio fruituez osatutako oparia?

Nahi dugun edozeini egin diezaiokegu halako oparia. Fruituen saskia hurbileko norbaiti egin al diogu, zeozer eskertu edo zoriontzeko, baina hain pertsonalak ez diren harremanetan ere esker onak adierazteko ere oparitu dezakegu. Gakoa zerbait ezberdina eskaintzean datza, berritasun batekin nahi dugun pertsona hori harritzea, eta guk beste herrialdeetatik ekarritako fruituak eskuragarri ditugu nahi duenarentzat.

Zein da saski batengatik ordaindu dezakeguna?

Denetarik daukagu. Saski merkeenenak 22 euro inguru balio du, eta hortik aurrera norberak gastatu nahi duena.

Zer berezitasun du fruitak opari bilakatzeko?

Osasuntsua eta gustagarria dela betiere halako oparia jasotzea. Edonori oparitutara ere gustuko izango duela uste dugu, bete-betean asmatzeko egindako oparia dela hain zuzen ere. Freskoa, koloretsua, gozoa, ezberdina eta osasuntsua dela finean•

Ekainak 17, OSTIRALA

QEU

Aldizkariaren
150. aleko

JAIA

AZKENA Aretoan 21:30ean

capoeira
txalaparta-alboka-trikia
techno-musika

IKUSKIZUNA

irudi-proiektzioak. **isdeo**

euskal musika dantzagarria

Π.L.T

konzertua

Obra Social
Caja Vital Vital Kidea
Gizarte-Ekintza

SARRERAK: 10€, aldez aurretik | 12€ leihatilan | (lehen kontsumizioa, 2€) SALMENTA-TOKIAK: Arriaga, Frudisk, Tipo, Gong Lakua eta Azkena


negua udaberria **uda** udazkena



uda honetan euskara praktikak

lesaka eta zubietako
barnetegietan

matrikula zaitez **udako** ikastaro eta barnetegietan
matricúlate en los cursos de **verano** y barnetegis

www.ikastari.com



iruñea 948 22 22 46 lesaka 948 63 77 96

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

gasteiz 945 15 43 41 errioxa 945 60 10 87

AZKENA ROCK FESTIVAL (2)
AURKEZPEN BIRA

MOTHER SUPERIOR * HASH THE SOULBREAKER COMPANY

MADRIL EL SOL · Ekainak 8

XIXON ALBENIZ · Ekainak 9

SANTIAGO CAPITOL · Ekainak 10

BILBO AZKENA · Ekainak 11

IRUÑEA TOTEM · Ekainak 12

BURGOS QUINTA AVENIDA · Ekainak 15

ZARAGOZA CASA DEL LOCO · Ekainak 16

BARTZELONA MEPHISTO · Ekainak 17

SANTA POLA CAMELOT · Ekainak 18

vitoria-gasteiz
azkena
rock festival
2005

2005eko Irailaren 2a, Ostirala
eta Irailaren 3a, larunbata
Mendizabala Barrutia · Vitoria-Gasteiz
Kaping-a de balde · Azoka
Bi Eskenatoki · Rock Karpa

**QUEENS OF THE STONE AGE SOCIAL DISTORTION
WILCO MONSTER MAGNET DRIVE-BY TRUCKERS
GOV'T MULE BAD RELIGION BEASTS OF BOURBON
MASTERS OF REALITY BRANT BJORK & THE BROS
JULIETTE & THE LICKS SPLIT 77 HASH ELECTRIC SIX
TOWERS OF LONDON ROSE HILL DRIVE ...**

Bonoak Salgai: Coruña (Noni Shop), Alacant-Elx (La Bateria), Bartzelona (Revolver, Discos Castelló, CD Drome), Baiona (Mattin Megadenda), Bilbo (Azkena Bilbao, Power Records), Burgos (Tipo), Castelló (Discos Medicinales), Donostia (Frudisk), Irun (Bloody Mary), Xixon (Liberia Paradisso), León-Ponferrada (Tipo), Logroño (Discos Gutierrez), Madril (Escridiscos, Cd Drome, Record Runner), Malaga-Antequera (Sonar Discos), Oviedo (Turly Discos), Iruñea (Tipo), Santander (Discos Gong), Santiago (Discos Gong), Valentzia (Harmony), Vigo (Discos Elepé), Vitoria-Gasteiz (Cultural Alava, Azkena Gasteiz, Frudisk, Tipo, Arriaga Megadenda, Gong Lakua), Zaragoza (Tipo). www.servicaixa.com-en, Servicaixa sarean eta 902 332211 telefonoan ere sarrerak eskuragarri.

INFORMAZIO GEHIAGO, BERRIAK,
KONFIRMAZIO GEHIAGO:

www.azkenarockfestival.com

Ekainak 17, OSTIRALA

GEU

ALDIZKARIAren 150. aleko JAIA

AZKENA Aretoan 21:30ean

capoeira
txalaparta-alboka-trikia
techno-musika
IKUSKIZUNA

irudi-proiektzioak. **isdeo**
euskal musika dantzagarrria

Π.L.T
kontzertua

SARRERAK: 10€, aldez aurretik | 12€ leihatilan | (lehen kontsumizioa 2€)
SALMENTA-TOKIAK: Arriaga, Fundisk, Iipo, Gong Lakua eta Azkena
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa